

Juan Garmendia Larrañaga

Historia egiten duten Industria

Tolosarrak



43



1987. Industrias Tolosanas que hacen historia: trabajo de ingreso como Amigo de Número de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, leído el día 26 de Mayo de 1981 en el Salón del Excelentísimo Ayuntamiento de Tolosa = Historia egiten duten Industria Tolosarrak: Euskal Herriaren Adiskideen Elkartean Adiskide Zenbakidun bezala sartzeko Lana, 1981eko Maiatzaren 26an irakurria; Tolosako Udaletxeko Pleno Aretoan / Juan Garmendia Larrañaga. – Tolosa : Tolosako Udala = Ayuntamiento de Tolosa, 1987. – Castellano, euskera

1998. Industrias Tolosanas que hacen historia: trabajo de ingreso como Amigo de Número de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, leído el día 26 de Mayo de 1981 en el Salón del Excelentísimo Ayuntamiento de Tolosa = Historia egiten duten Industria Tolosarrak: Euskal Herriaren Adiskideen Elkartean Adiskide Zenbakidun bezala sartzeko Lana, 1981eko Maiatzaren 26an irakurria; Tolosako Udaletxeko Pleno Aretoan / Juan Garmendia Larrañaga. – En : *Historia*. – (Euskal Herria. Etnografía. Historia. Juan Garmendia Larrañaga. Obra Completa ; 7). – Donostia : Haranburu Editor, 1998. – Castellano, euskera

2007

Historia egiten duten Industria Tolosarrak: Euskal Herriaren Adiskideen Elkartean Adiskide Zenbakidun bezala sartzeko Lana, 1981eko Maiatzaren 26an irakurria; Tolosako Udaletxeko Pleno Aretoan / Juan Garmendia Larrañaga. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2007. – 47, or. : ir. – (Juan Garmendia Larrañaga Bilduma ; 43). – ISBN: 978-84-8419-106-3. – Antxon Elósegui Vitoriari eskainitako edizioa.

Azalaren argazkia:

Álbum-gráfico-descriptivo del País Vascongado : años 1914-1415 : tomo Guipúzcoa / Rafael Picavea, editor literario, 1915 [s.n.]



EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS - SOCIÉTÉ D'ÉTUDES BASQUES

Institución fundada en 1918 por las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra.
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48 - 20007 Donostia - Tel. 943 31 08 55 - Fax 943 21 39 56
Internet: <http://www.eusko-ikaskuntza.org> - E-mail: ei-sev@eusko-ikaskuntza.org

Fotokonposaketa: Michelena artes gráficas. Astigarraga
Digitalizazioa eta argitalpen elektronikoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzarekin

Historia egiten duten industria tolosarrak.

Euskal Herriaren Adiskideen Elkartean Adiskide
Zenbakidun bezala sartzeko Lana, 1981eko
Maiatzaren 26an irakurria; Tolosako Udaletxeko
Pleno Aretoan

Juan Garmendia Larrañaga

Orria

Kredituak

Juan Antonio Garmendia Elosegik, Juan Garmendia Larrañaga Adiskide berriari egindako aurkezpena	3
Juan Ramon Urkijoren mintzaldia	9
Historia egiten duten industria tolosarrak	13
Merkataritza eta azoka edo feriak, elkarloturiko iharduerak ..	15
Lantegiak: jan, edan eta erre. Festak eta jokua	16
Teilagintza	31
Larru-lantegiak	32
Irugintza eta ehungintza	34
Kapelagintza	35
Zurgina	36
Harginak	38
Burdina	38



Sarrerako lanaren irakurtzea. Jose Antonio Echenique, Juan Ramón de Urquijo, Jose Agirrezabala, Jose Miguel de Barandiaran, Juan Garmendia Larranaga.

Juan Antonio Garmendia Elosegik, Juan Garmendia Larrañaga Adiskide berriari egindako aurkezpena

Festa eguna Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearentzat, Tolosako Herri honentzat, Juan Garmendia Larrañagarentzat, eta azken finean, euskal kulturarentzat, gure ikerlari eta etnografo maitea bezain mirestua Elkartearen sartzeko, Zenbakidun Adiskide bezala, egintza formala burutzen duen hau, bere Sarrera-Lana irakurriz.

Bihoa, bada, aurretik gure tolosar sonatu eta ezagunarentzat gure zorionik beroena eta besarkada anaikiroa, Herriaren Adiskide eta Juanitoren adiskide bezala, kirurgi-operazioa gaintitzen ari naizen honetan, egintza horretan nire ausentzia konpondu nahiean, nolabait, lerro hauen bidez. Eta nire eskerrik beroena, Gipuzkoako Batzordearen izenean bilkura horretan hitz egiteko ohorea izango zuena Adiskide apal hau izan zedin Juan Garmendiak eginiko ahalegin lagunkoiagatik.

Nire agurrik beroenak ere, Tolosako Udaletxeko Areto honetan agerturiko lagun, pertsonalitate eta udal-gorporaziokideei. Eta bereziki, Herriaren Adiskide maiteei, eta Mahai horretako partaideak: Juan Ramon Urkijo, Bizkaiko Batzordeko gure Lehendakari mirestua, eta Jose Antonio Etxenike, Gipuzkoako Batzordekoa. Besarkada hau, beste bi Adiskideri luzatzen diet, bere karguen eginbeharrak direla eta Lehendakaritza-Mahai honetatik kanpo: Iñaki Linazasoro Alkatea eta Gipuzkoako Batzordeko Lehendakaria den Juan Ignazio Uria, batera egindako lanetan hainbatetan laguntzaileak.

Juan Garmendia eta biok gure adiskidetasuna indartzen dugu, aurretik zetorren erlazio beroa sendotuz, bere *Inauteria-El Carnaval vasco* lan garrantzitsua argitaratu zenetik, Edizio eta Argitalpenetako Elkarte Gipuzkoarrak eta Donostiako Aurrezki Kutxa Municipalak argitaratua, Herriaren Adiskideen laguntzaz, 1972-73. ean, liburu hau klasikotzat jotzen da euskal etnografiaren barnean, bai egilea, argitaletxea eta *Graficas Izarra* imprimategiaren aldetik ilusio haundiz ateratakoa, eta bere arrakastaren froga, guztiz agortuta egotea

delarik. (1983.ean lan hau berriro argitaratu zen *Editorial Larrun S.A.* eta *Donostiako Aurrezki Kutxa Municipalak* ateratako bilduma baten barne).

Orduz geroztik, Aurrezki Kutxa Municipallean Juanitoren eskuhartze paregabearekin kontatu dugu, hitzaldi eta mahai-inguruetako partaide bezala; idatzizko lanak; Pio Caro Barojaren *Gipuzkoa* dokumentalean aholkularitza nagusia (zenbat oroitzapen, Juanito maitea, nekazalihauteriari buruz Orexan egindako filmaketetan, eta filmean zeharreko hainbat pasarte etnografikotan, zuk xehetasun osoz prestatuak). Duela gutxi, aipatu Erakundeko Gizarte-Lanetarako Batzordeko partaide izendatua izan da, Agustin Zumalabe ahanztezinaren ordean, eta Erakundearen ordezkari gisa (Eusko Ikaskuntza). (Gaur egun, Julio Caro Barojak zuzentzen duen RIEV-eko Idazkari-Gestore eta Erredakzio Komiteko Koordinadore da).

Baina, Aurrezki Kutxa Municipalaz gain, beste entitate gipuzkoar askok dute Juan Garmendia Larrañagaren presentzia eta partehartzea, Euskaltzaindikoko partaide bezala; gure Foru Diputazioko aspaldiko Kultur-Kooperaziorako Juntako partaidea –gaur egun Kultur-Kontseilaritza–; San Telmo Museoaren Juntan, Etnografia Saileko partaidea; Eusko Ikaskuntzako Batzorde Ejekutiboko partaidea, etab., gure Herriko Kultura eta etnografiaren zerbitzuan ihar-duera emankorraren agerpena bezala.

Guzti honen sintesia bezala, On Joxe Migel Barandiaranek, *euskal kulturaren patriarkak*, publikoki adierazitakoa, Juan Garmendia Larrañagak garatzen duen obra, maila zientifikorik gorenean, eta era berean, zabaltzailean, finkatuz.

Gremios, oficios y cofradías en el País Vasco bere libururako idazteko ohorea izan nuen biografian, eta gure egileak egindako lanaren zentzua ondo interpretatzen nuelakoan, hau nioen testualki:

Viajero incansable por los campos y los pueblos de nuestro País, su obra tiene la consistencia de la autenticidad y el rigor. Porque sus investigaciones son fruto de la observación inmediata, de la conversación atenta, de la consulta documental y humana, directa, a las fuentes originales.

Las intensas horas de convivencia y coloquio con nuestros hombres y mujeres, depositarios de la vieja tradición laboral vasca –muchos de ellos ya desaparecidos y cuyo precioso testimonio ha quedado recogido en los estudios de nuestro autor–; la larga estancia en tantos y tantos locales de trabajo del mundo rural y urbano, y sus continuos viajes a nuestros pueblos, atento siempre a los valores históricos y tradicionales del alma vasca que aún encierran, han producido –unido todo este trabajo de campo a la imprescindible labor de estudio y reflexión en archivos y libros–, han producido, decíamos, una obra muy importante, expuesta con sencillez, amenidad y documentación...

Euskaraz eta gazteleraz egindako obra, Tolosako euskara garbi eta polita erabiliaz; euskaldun orok zor dion gurtzez Garmendia Larrañagak erabilitako hizkuntza. Ez da gaizki etorriko puntu honetan, Juanito Laskorain Ikastolaren bultzatzaileetako bat izan zela esatea, hirurogeigarren hamarkadan.

Giza-alorrera etorri, eta adiskidetasunak ahalbidetzen didan planorik objetiboenean ezarririk, ezinezkoa da bere giza-kalitatea, morala eta hiritarraz ez ohartzea, guztira eta guztiengana irekia. Bere harrera abegikor horren sintoma, eguneroko tertulia zahar eta klasikoa da, –zalantzarik gabe, Tolosako interesgarriena– bere etxeko aintzineko obradorean, Tolosako gremio eta artesau tradizioaren benetazko erlikia, eta oraindik ere Ignazio Garmendia J.k, bere aita agurgarriak daramana. Kale Nagusiko etxe zahar horretan, Tolosa jator eta benetazkoan, gure lagunak pentsatu egiten du, bere gaiak mamitu, ikasi, kontsultatu, liburuak egin, idatzi. Beti isilik eta beti lehiati. Unibertsitateko ikasketek bere kultur-ezaguerak zabaltzen ditu. Eta bere ikerketek, ondo egindako lanaren izena eta ospea jasotzen dute.

Juan Garmendia Larrañagaren kultur-ekarpenak Elkartearen eginbide paregabearekin bat egiten duela ondorioztatzea ez da batere zaila, eta, Juan Garmendia berak eta Federico Zabalak beren *Monografía histórica de la villa de Tolosa* liburuan, gogoratzen diguten bezala, herri honetan Marrazki Akademia sortu zuen 1807an eta Humanitate-Ikastetxea 1840.ean.

Behin data honetara iritsiz gero, ezin utzi hemen gogoratu gabe Julian Martinez Adiskideak, San Telmo Udal-Museoko Zuzendaria eta Gipuzkoako gure Batzordeko partaidea, *Filiación de los seminaristas del Real Seminario Patriótico Bascongado y de nobles de Vergara* izenburutzat daraman ikerketa apartan agertutakoa, 1972.ean Elkarateak argitaraturik. Liburu horretan Julian Martinezek jasotzen duen Bergarako Apaiztegiko ikasleen erlazio luzean zehar, XVIII eta XIX. mendeetan Tolosakoak ziren zerrenda.

- Fernando Jose eta Jose Manuel Barrenetxea Lapaza (1788tik 89ra).
- Joakin eta Jose Carrese Imaz (1786tik 87ra).
- Manuel Ignazio Zendoia Zuloaga (1829tik 33ra).
- Migel Garmendia Aldekoa (1813tik 20ra).
- Ramon Mendizabal Lardizabal (1814etik 19ra).
- Teodoro Uriarte Furira (1832an).
- Jose Ramon Zabala Arbildi (1813tik 16ra).
- Serapio Agirre Sorrain (1845etik 47ra).
- Basilio Garmendia Aranbarri (1845etik 46ra)
- Jose Benito Mendia Lili (1849an).
- Valerio Otegi Lizargarate (1845etik 47ra).

Barkaezina litzateke aurreko erlazio horretan Felix M^a Samaniego eta Zabala, Munibe eta Arteaga garrantzitsuen izena ez aipatzea, Peñafloidako Kontearen iloba (mundu guztiak dakien bezala, Euskal Herriaren Adiskideen sortzailea) eta bere amaren aldetik Tolosako familiarik agurgarrienetarikoaren ondorengoa, Jose Zabala Yurreamendi J. eta M^a Rosa Arteaga Lazkano Andrearen, biak Tolosan jaio eta bizituak, iloba izanik.

Samaniego izan zen Bergarako Errege-Apaiztegia eta Adiskideen Elkartearen sortzailea, aurreneko hura Giner de los Rios eta Irakaskuntza Librearen Instituzioaren lehen eskola laikoaren aintzindari bezala jotzen zelarik.

Samaniego, Tolosan egindako egonaldietan, gauza jakina denez, Yurrea-mendiko bere jauregi-etxean izaten zen, eta Herri honetako alkate izendatua izan zen 1775.ean. Eta bere agintaldi laburrean –Emilio Palacios biografo apartaren eritziz– asmatu omen zuen.

1981-84ean Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak argitaratuta eta luza-roan eskoletan textu didaktiko bezala erabilitako *Fábulas en Verso Castellano para el uso del Real Seminario Bascongado* sonatuen egileak, badu 1977tik aurrera, Iñaki Linazasorok bere *Historia y guía de Tolosa* interesgarrian gogoratzen digun lez, kalerik Tolosan, Laskoraingo zabalgunean.

Adiskideen Elkarteak eta bere Bergarako Apaiztegiak Tolosarekin izan duen erlazio historikoari derrigorrezko gogoratze hori burutu ondoren, amaitu beharra dago kultur tradizioari jarraitu dioten atzoko eta gaurko tolosarren aipamenarekin. Zenbait Adiskide eta gure Elkartearen laguntzaile direnak aipatzeak, errealitate adierazgarriaren aurrean jarriko gaitu. Horretarako nahikoak dira ondorengo izenak: Javier Bello-Portu, Jesus Elosegí, Juan Garmendia Larrañaga, Karmele eta Mirentxu Goñi Auzmendi, Sebastian Insausti, Edorta Kortadi, Antonio Labaien, Manuel Laborde, Iñaki Linazasoro, Isabel Lobo eta Federico Zabala. Guzti hauek, bihotzeko adiskideak.

Azkenik ez nituzke ere ahaztu nahi gure azkeneko Zuzendari eta Lehendakariak, urte hauetan Tolosan izan dituzten eskuhartze garrantzitsuak.

Horrela, Alvaro del Valle Lersundi ahantzezina, Abesbatzen Euskal Kanta eta Polifonia VI. Lehiaketan «Pregoa» irakurtzean, 1974eko Azaroan, gai bezala «Música y músicos del País Vasco», Leidor zineman.

(Beste Euskal Herriaren Adiskide ospetsuek, Isidoro Fagoaga eta Manuel Lekuonak hain zuzen ere, Pregoi bana irakurri zuten, Juan Garmendiak oso ondo dakien bezala).

Garai hartan Euskal Herriaren Adiskideen Zuzendaria izan zen Juan Ramon Urkijok, Antonio Labaienen *El escribano Muñagorri, pacificador y fuerista - Muñagorri eskribaua, pakegille ta fuerozale* liburuaren aurkezpenean esku hartu zuen, 1976ko Azaroan, Gorosabel kaleko Aurrezki Kutxa Muzipalaren Aretoan.

Eta Juan Ignazio Uriak, Javier Bello-Porturekin batera, Juan Anchietari eskeinutako saioan Idiaquez Jauregian 1976ko Urrian parte hartu zuen. Eta 1977ko Urtarrilean izandako saioan, Pleno Areto honetan bertan, Tolosako seme ospetsuak omenduak izan ziren.

(Orduko hartan Migel Pelay Orozko lagun minak Tolosako itxaropenezko kantua egin zion bere kultur eta euskal ekintza betetzera (edo jarraitzera, hobe esanda) gonbidatuz).

Ekintza hartan omenduetariko bat, Garmendia Larrañaga izan zen. Gaur, urteak pasa eta gero, eta leku berean Euskalerriko kultur-entitaterik zaharrena eta agurgarrienak eskeinitako eskertza eta begikotasunezko omenaldia jasotzen du: Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearena, eta bere partaiderik errepresentagarrienetakoa den Juan Ramon Urkijok, Juan Garmendia Larrañaga Adiskideari Elkartearen domina ezarriko dio.

Nire benetako nahia hitz hauek amaitzean, egun bezelako kultur egintzak Tolosan berriro egitea da.

Gaurko bide honi jarraitzea, «Euskalerraren Adiskideen Elkartearen» barnean, batez ere.

Adierazi dudan hau, uri honek eta bere seme batzuren jakintzalanak merezi dutela, kezkarik ez bait dut.

Zorionik beroenak Juan Garmendia Larrañagari. Bere ekintza aberatsean oinarritzen da gure Elkartearen itxaropena, eta berdin ere Euskalerriko etnografiako sail aberatsa. Ziur gaude denok, Juan Garmendia Larrañagak jarraituko duela bere bidean, euskal kulturaren onerako.



Juan Ramón Urquijo-k domina ezartzen dio Juan Garmendia Larrañaga-ri, Jose Agirrezabala eta Jose Miguel de Barandiaran aurrean dituek

Juan Ramon Urkijoren mintzaldia

Bizkaitar bezala eta Euskal Herriaren adiskide bezala, bereziki gustokoa eta ohorezkoa zait, Mahai honetan esku hartzea. Euskal Herriko Adiskideen Bizkaiko Batzordearen zuzendari ohi eta oraingo Lehendakari bezala eta Euskal Herritik kanpora dabilen Juan Ignazio Uria, Gipuzkoako Lehendakariaren orde. Bizkaitarrontzat, Gipuzkoako arazoak ere geureak bait dira. Zuentzat ere, Jaurerriari dagokion guztia Gipuzkoako arazoa den era berean.

Gogozkoa zait ere Udal-areto noble honetako lehendakaritzan gaur eserzea, hau izan bait da Gipuzkoako fororik garrantzitsuenetako bat Tolosako tradizio historiko goragarrian suposatzen duenarengatik. Eta Tolosa da gure hiririk esanguratsuen eta errepresentagarrienetako bat. Hau ez da, ordea, tolosarren aurreko lausengo erraza, frogatzeko moduko errealitate garbia baizik. Juan Garmendia Larrañagari eta Gipuzkoako Batzorde anaikorrari, beraz, ekintza honek eskeini didan aukera eskertu nahi diet.

Euskal Herriaren Adiskideen Elkartea kanpaina bizi bat ari da garatzen ikasturte honetan Euskal Herrian zehar, gaurkoaren antzeko ekintzak antolatuz. Zenbakidun Adiskide goren batzuren zenbait sarrera-hitzaldi eman dira euskal tribuna garrantzitsuetan, beren edukiek benetako dokumentazio eta ikerketa-«corpus» bat osatzen dutelarik, Adiskideen Elkaratearen usuarioa, prestigioa eta maila duen erakunde bati dagokion bezala. Gure Elkaratearen ezagarrietako bat, Zientziak, Letrak eta Arteak, euskaraz eta erdaraz lantzeko eta dibulgatzeko benetako Akademia izatearena bait da.

Hor dago idatzita, hamaika argitalpenetan, Euskal Herriko Adiskideen kultur-iharduera «Nazio Baskongadoaren» zerbitzuan —«Azkoitiko Zalduntxoek», XVIII. mendeko aintzindariak, gure Herria definitu zuten bezala—, berrehun urte baino gehiagotan zehar.

Geurea bezalako historia mugitu batetan, denbora guzti honetan, kontutan hartu beharrekoa da Adiskideen Elkarreak hainbeste oztopo eta zailtasun gainditu izana, gaurko egunetara bere bizkar zaharren gainean kultur-ekinbide bizi batekin eta benetako duintasunez iritsiz. Mantendu eta indartuko al dugu

Euskal Herriko Adiskideen unerik dizdiratsuena markatu zuen euskal eta uni-
bertsal izpiritua, izpiritu progresibo eta kritikoa!

Gaurko ekintza, Euskal Herriko Adiskideek, euskal kulturaren dagoen erre-
presentagarriena, dinamikoena eta eraginkorrena bere baitan sartzeko egiten
ari diren ahaleginaren barnean kokatzen da. Euskal Herriko andra-gizonak,
geure kulturaren langileak etengabeki ari dira Elkartearen gorputza sendo-
tzen, beronek, euskal gizartearen etorkizun-ametsak eta kultur errealitatea,
oso gertutik, egunean bizitzeko konpromezua onartzen duelarik honela.

Ez dago azpimarratu beharrik, gure kulturaren benetako langile sakrifi-
katu horietako bat, biziki nabarmena dena bere etnografi-ekarpenarengatik,
Juan Garmendia Larrañaga Adiskide maite eta mirestua dela. Bere izena,
beronen gaztetasunaren heldutasunean, maisutzat hartua da Araba, Bizkaia,
Gipuzkoa eta Nafarroan, eta bere lan aztertzaile geldieztina –duela zenbait
egun *El Diario Vascon* Santiago Aizarna Adiskideak komentatzen zuen bezala-
argitaratzen dituen liburuen aztarnaren bidez jarrai daiteke.

Izan ere, eta nahiz eta gauza jakina izan, gogora dezagun gaurko ekintzan
Juan Garmendia Larrañagari zor diogun justiziagatik, bere liburu produkzioa:

- *Monografía histórica de la villa de Tolosa*. (Federico Zabalarekin elkarla-
nean). (Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalak saritua eta argitaratua,
102 orri. Marrazkiak. 1969. urtea).
- *Euskal esku-langintza - Artesanía vasca*. I. Bol. (Edizio elebiduna). (Auña-
mendi bilduma. Donostia. 79. zk., 147 orri. Marrazki eta argazkiak. 1
970. urtea).
- *Euskal esku-langintza - Artesanía vasca* II. Bol. (Edizio elebiduna). (Auña-
mendi bilduma. Donostia. 80. zk., 151 orri. Marrazki eta argazkiak.
1970. urtea).
- *Euskal esku-langintza - Artesanía vasca* III. Bol. (Edizio elebiduna).
(Añaamendi bilduma. Donostia. 91 zk., 183 orri. Marrazki eta argaz-
kiak. 1 972. urtea).
- *Euskal esku-langintza - Artesanía vasca* IV. Bol. (Edizio elebiduna).
(Añaamendi bilduma. Donostia. 92. zk., 149 orri. Marrazki eta argaz-
kiak. 1 972. urtea).
- *El carnaval vasco y sus personajes*, «Mitos y Leyendas del País Vasco»
bolumenean. (Induban. Donostia. Marrazkiak. 1973. urtea).
- *Iñauteria - El carnaval vasco* (Edizio elebiduna). (Donostiako Aurrezki
Kutxa Munizipaleko Edizio eta Argitalpeneko Elkarte Gipuzkoarra, 395
orri. Marrazki eta argazkiak. 1973. urtea). (Larrun argitaletxea, S.A. -
Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala, 1982. urtea).

- *Album de artesanía vasca - Euskal esku-langintz bilduma*. (Edizio elebiduna). (Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala. 1973. urtea).
- *Euskal esku-langintza - Artesanía vasca V. Bol.* (Edizio elebiduna). (Añañamendi bilduma. Donostia. 105. zk., 163 orri. Marrazkiak 1975. urtea).
- *De etnografía vasca (lau saiakera): El caserío. Ritos fúnebres. Galera del boyero. Las ferrerías*. (Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, 246 orri. Marrazki eta argazkiak. 1976. urtea).
- *Valle de Roncal. Paisajes y labores*. (Nafarroako Foru Diputazioa, 29 orri. Marrazkiak eta argazkiak. 1976. urtea).
- *La artesanía, su evolución y régimen laboral - Eskulangintza, berealdaketa eta arauak*. (Arrantzaleak - Esku-Langintza). (Edizio elebiduna). (Anastasio Arrindarekin elkarlanean). (Etor. Donostia. 8. faszikuloa. 113/128 orriak, «Euskaldunak- Euskal etnia» bilduman. Marrazkiak eta argazkiak. 1978. urtea).
- *La artesanía, su evolución y régimen laboral - Eskulangintza, berealdaketa eta arauak..* (Esku-langintza). (Edizio elebiduna). (Etor. Donostia. 9. faszikuloa. 129/144 orriak, «Euskaldunak- Euskal etnia» bilduman. Marrazkiak eta argazkiak. 1978. urtea).
- *Apuntes etnográficos del Valle de Aramayona. Aperos de labranza/lana-besak*. (Edizio elebiduna). («Sancho el Sabio» erakundea, Gasteizeko Aurrezki Kutxa Munizipala, 249 orri. Marrazkiak. 1978. urtea).
- *Gremios, oficios y cofradías en el País Vasco*. (Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala. 314 orri. Marrazki eta argazkiak. 1979. urtea).
- *Euskal esku-langintza - Artesanía vasca. VI. Bol.* (Edizio elebiduna). (Añañamendi bilduma. Donostia. 128. zk., 263 orri. Marrazki eta argazkiak. 1980. urtea).

Gainera, aldizkari espezializatuetakoa lankidetzak daude, hala nola, Aranzadi, Natur Zientzietako Elkartearen *Anuario de eusko folklore* delakoan, gaur egun, Eusko Ikaskuntzaren argitalpena dena eta *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra* (Nafarroako Foru Diputazioaren «Príncipe de Viana» erakundearena). Baita ere Donostiako *El Diario Vascon, Economía vasca* kongada, *Guipuzcoa*, etab. bezalako aldizkarietako artikulu ugariak.

Sarritan deitzen diote Euskal Herriko kultur-erakundeek, bere espezialitateko gaietan hitzaldiak eman ditzan euskaraz nahiz erdaraz.

Azken batetan, hemen aipatu duguna Juan Garmendia Larrañagaren lanaren zati bat besterik ez da. Bere beste zenbait meritu garrantzitsu Mahai honetako partaideek azaltzen dituzte.

Guzti honengatik, gaurko eguna, gogoangarria da bereziki Euskal Herriko adiskideen Errege-Elkartearentzat eta bere domina Euskal Herriko gure Adiskide garantzitsuari, gure adiskide maiteari merezimendu osoz jartzeko ohorea izango dut.

Irakurketa hau egin eta ia sei urte bete direnean, egileak haunditu egin du bere liburu-produkzioa (1987ko Otsaila) izenburu hauekin:

- *Carnaval en Alava* (Haranburu argitalpenak, S.A. Donostia, 141 orri. Marrazkiak. 1982. urtea).
- *Burniarozgintza eta zurlangintza Berastegin. La forja del hierro y el labrado de la madera en Berastegui*. (Edizio elebiduna). (Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, 161 orri. Marrazki eta argazkiak. 1982. urtea).
- *Artesanos de la regata del Bidasoa (Sumbilla, Aranaz y Yanci)*. (Txertoa. Donostia, 123 orri. Marrazki eta argazkiak. 1983. urtea).
- *El mar de los vascos II. Leyendas, tradiciones y vida del Golfo de Vizcaya al Mediterráneo*. (Luis Pedro Peña Santiagorekinelkarlanean). (Txertoa. Donostia, 184 orri. Marrazki eta argazkiak. 1983. urtea).
- *Carnaval en Navarra*. (Haranburu argitalpenak, S.A. Donostia, 255 orri. Marrazkiak. 1984. urtea).
- *Bidasoaldeko eskulangintzak. Sunbilla, Arantza eta Igantziko etxe-lantegiak*. (Antropologiaren Euskal Bilduma (AEB). Barandiaran Joxemiel). (Haranburu editorea, S.A. Donostia, 136 orri. Argazki eta marrazkiak. 1986. urtea).
- *Léxico etnográfico vasco - Euskal lexiko etnografikoa*. (1984eko Urriaren 3an egileak emandako mintzaldia, Doktore titulua lortzeko EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Antropologia Filosofiakoaren Katedraren markoan, Donostian. Edizio eta Argitalpenetarako Elkarte Gipuzkoarra. Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala eta Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 426 orri. Irudi artistikoak. Donostia, 1987 urtea).

Historia egiten duten industria tolosarrak

Euskal Herriaren Adiskideen Elkartean, Adiskide Zenbakidun bezala Sartzeko Lana, 1981eko Maiatzaren 26an irakurria, Tolosako Udaletxeko Pleno Aretoan.

Jaun andreok, arratsalde on denoi. Nire lehen hitzak eskerrak emateko izango dira. Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteari Numerozko Adiskide sartzeko honen goragarriagatik. Baita ere nire herriko Udalarari, Gela Nagusi hau hain leialki utzi digutelako, eta nire Uri-batzar honen eskutitz atsegingarriagatik.

Eskerrik beroenak Juan Ramon Urkijori, bere hitz maitekorrengatik. Jakintza sakoneko gizona, Urkijo adiskidea.

Hemen oroituko naiz, nola ez, nire bihotzeko adiskide Juan Antonio Garmendia Elosegitaz, egun hauetan etxe aldetik, gaitza gaindituta, zorionez.

Bere hitzak, Jose Antonio Etxenikek irakurriko ditu.

Gurekin dugu On Jose Migel Barandiaran, adiskide eta maisu ospetsua. Berari eta hemen aurkitzen zareten guztioi, eta berdin ere ezin etorriarik borondate ona azaldu didaten guztiei, mila esker!

Aurrera jarraitu baino lehen iruditzen zait behar beharrezkoak direla ohar batzu. Nire mintzaldi hau gure egunetan izkutatuta aurkitzen diren lantegiei buruz izango da. Adibidez, txapela eta papergintza ez dira niretzat interesgarriak izango. Hau ondo azpimarratuta utzi nahi dut.

Adieraziko dut ere hitzaldi honetan besteek idatzitako gauza gutxitaz baliatuko naizela, nire ikerketari esker jasotakoak azalduko dira garrantzitsu, noski. Nire nahia beteko bait da gure ezaugarriak hornitzearekin.

Maila orokorrean hitzeginda, oharterazi nahi dut, produkzio industrialari buruz hitzegiterakoan, bidezko bereizketa egin behar dela, autokontsumoa betetzera mugatzen zena, aborokinen arloan mugitzen zena, merkantilismoaren garaia, eta Industri-lraulatzatik abiatzen den aroa –XVIII. mendea Ingalaterran– eta ondorengo makinismoaren sorreraren artean. Produkzio industrialak ez da, beraz, ikusi behar globalizatuta eta beti dakartzan egintza sozio-ekonomiko eta politikoetatik aparte.

Hitzaurre hau amaiturik, sar gaitezen gaian pixkanaka pixkanaka.

Tolosa sortu aurreko gizonek artzantza zuten beren beharra. Goi Erdi Aroko garaietan ez zen Tolosarik, uri bezala behintzat, baina gure aurrekoek artzantza izan zuten beren lanbide.

Lugar izenez ezagutu izan diren edo egun ezagutzen diren lekuak, uri aurrekoak dira eta artzantzara garamatza Manuel Lekuonak argi eta garbi adierazten duen bezala. Aranburu edo Zabala Jauregia, non eta 1696. urtean *Nueva Recopilación de los Fueros, Privilegios, buenos Usos y costumbres, Leyes y Ordenes de la muy N. y muy L. Provincia de Guipúzcoa* delakoa lehen aldiz inprimatu bait zen, *Salsoro* izenez ezagutzen zen, artzain eta nekazal kutsuko hitza, Antonio M^a Labaienek, *Ibalan* izengoitiz, garbi adierazi zuen bezala.

Behe Erdi Aroan, *lugar* delako haietako batzu herri bihurtu ziren.

Artzantzaren inguruan nekazaritza indartzen joan zen.

Gure Zaldibia Batxilerrak honela dio bere *Suma de las Cosas Cantábricas y Guipuzcoanas* liburuan:

se ha de suponer que al tiempo no había en ella –Gipuzkoan– villas ni en las aldeas tanta población, como después, andando al tiempo, se ha hecho y multiplicado, salvo que toda la población era solamente de caserías (...).

1346. urtean eginiko odolgarbikoen erroldan azaltzen den zerrendak, mendi kutsua du: *Alliri, Alzusta, Ayceta*, etab.

Braudelek dioenez:

La montaña es una fábrica de hombres para uso ajeno y la trashumancia es el más poderoso de estos movimientos de arriba abajo.

IX eta X. mendeetan oraindik leku garaietan bizitzen zen, eta ez dezagun ahantz, lekurik malkarrenak beti izan direla askatasunaren babesleku. Mendia soldadu eta piraten aurkako babeslekua dela esaten digu Bibliak.

Tolosak oso egokia izan du bere sorlekua, bai atze-aurrera ibili beharrezko izan diren bideei begira eta baita ere, Nafarroako Erresumari begiratuz.

Aita Henaok honela dio:

(Tolosa) Está cercada de muros, a lo antiguo, con torres a trechos sobre las puertas de la villa. La situación es casi en medio de Guipúzcoa, con inclinación a la mar y mucho mas al Reino de Navarra.

Harresi-barruan bizi izan ohi dira uritarrak, mendeetan zehar. Uritik kanpora, *terrenos comunales* direlakoak, aintzinako bizimoduari erantzule ditugularik. Artzaina ez baita lurra jabetzearen aldekoa, bere gozamenarena baizik.

XVII. mendearen lehen hamarkadan harresiak jarri zitzaizkion herriari, baina, askoz lehenago, 1290.ean, Santxo IV.ak, Gasteizen, bi harrobi eman zizkion Tolosako herriari harresiak egin zitzaizkion, eta datu hau Jesus Elosegiri irazustarengandik jasotzen dut.

Erdi Aroan, etxe bakoitzean eskulangilea dugu. Eta ondoren ere antzeko zerbaitek esan dezakegu.

1827. urtean Madrilan agertu zen *Diccionario Geográfico - Estadístico de España y Portugal* argitalpenak –Madril 1827– dioenez, lautatik hiru biztanle eskulangile ziren Tolosan.

Zer lantegi mota ote ziren haiek? Bere garaiko bizimoduaren erantzuna betetzekoak, kezkarik gabe.

Gogoan izan ugari zirela *intramuros* delakoan bizi eta at, kanpoan, nekazaritza ogibidetzat zutenak. Hauek behar-beharrezkoak zituzten lanabesak eta uritar guztientzat ere beharrezkoak ziren arotza edo zurgina, errementaria, zapatagilea, okina, jostuna, etab. Bizibideari erantzunez aberasten joan ziren lantegitxo hauek. Salerostearen arazoa ahaztu gabe.

MERKATARITZA ETA AZOKA EDO FERIAK, ELKARLOTURIKO IHARDUERAK

Jakina da Gipuzkoak Ingalaterrarekin merkataritza garrantzitsua izan zuela, eta horretan izan zuen zerikusirik Donmejon Gonzalez de Andia gure herritarrak, *Gipuzkoako Erregia*, XV. mendean zehar.

Saleroste honetan, Tolosako azokak gogoratuko ditugu, astearte ostegun eta larunbatez.

Merkatu gehienak mendez-mende izan ditugu gure artean. Behe Enperadoregoaren amaieran, *igandeko* errejimena sortzen da. Erreserba edo familia artean lantzeko lurra osatzen dute jaurreria, zuzeneko kontsumoaren eredu. Aurrerago, gizonak autokontsumoaldi hori gaingiduzten duenean eta, haseran ahulki, aborokinen ekonomiara hurbiltzen denean, –beharrak edota irabazteko asmoak bultzatuta– merkatal iharduerari ekiten zaio, eta honek dakar azoka eta ferien sorrera.

Erdi Aroan finkatutako merkatuak, bertako, bailarako edo lurraldeko jitea zuen. Merkatu bat sortu aurretik beharrezko zen errege-pribilegioa, eta bere maiztasuna astean egun bakarra edo gehiagokoa izan zitekeen.

Feriak urteko egun jakinetan eta gehienetan, bertako festa ospakizunekin batera finkatzen ziren. Erraz iristeko moduko lekuetan egiten ziren, kasu bakoitzean oso kontutan izanik bideetako eta ibai eta itsasoko garraioak.

Feriak, herriak bezala, –eta puntu batetaraino Mesta eta Burdinolak ere, obradore hauetako alkatea zelakoak zituen ahalmenengatik, adibide batzu aipatzearen– mundu hobagarri eta arautu baten barnean mugitu izan dira.

Feriek hurbildu egiten zituzten Ipar-Europako eta Mediterraneo inguruko gizonak, eta merkatarien bideak izaten ziren –batzu, *hansa* eta *La Hermandad de las Marismas* bezalako elkarten agindupean– Ekialde eta Mendebaldeko ibiltariak harremanetan jartzen zituztenak.

Esan dudanez, astean hiru bider izaten zen feria. Honela dio 1785.go Martxoaren 29an hartutako udal-erabakiak:

Se acuerda pedir licencia al Corregidor para costear de los fondos públicos un tinglado o tejavana –Tolosa– contra el muro de la calle de la Solana, para los forasteros que llegan a los mercados del martes, jueves y sábado.

LANTEGIAK: JAN, EDAN ETA ERRE. FESTAK ETA JOKUA

Lantegiei buruz gure herria ondo osatua, oso borobildua aurkitu zaigu igarotako garaietara begiratuz gero.

Gure joku berezia bezala pilota aipatuko dut, eta pilota jokuekin batera goante edo larruzko txisteragilea. 1801 urtean Humbolt-ek hau dio:

(...) al principio todos los jóvenes están en el juego de pelota. La pelota se lanza con la mano mediante un fuerte guante de cuero, o con una madera ancha por arriba.

Aipatu data hori baino lehenago, pilotaren jokuaen historian pelotaririk nagusienetako bat jokatzen ikusteko aukera izan zuen Tolosak, Perkain, alegia. Honi buruz, kontratu interesgarri honen zatiak honela dio:

28 de diciembre de 1795. Convenio para jugar un partido de pelota en esta villa entre D. Juan de Inda, alias Percain, y otros.

En la villa de Tolosa, a veintiocho de diciembre de mil setecientos noventa y cinco, ante mí el escribano y testigos parecieron presentes D. Juan de Inda, alias Percain, D. Bernardo Barcelona, alias Alduides, D. Francisco de Leiza, alias NARBARTO, D. Pedro José de Belaunzarán, alias Andoain; D. Félix de Almandoz, alias el Organista; D. Juan Bautista de Arbildi, alias Chinchoa; D. Simón Teus, alias Larraioz y D. Ignacio de Echeandía. Y dijeron que siendo noticiosos de que el Sr.

D. Miguel de Mendinueta del Consejo de S.M. y Delegado Regio en esta Provincia es de llegar a N. villa para la noche del día de hoy, y que acaso será del agrado de S.S. ver un partido de pelota, habían dispuesto obsequiarle con esta diversión, jugándole el día de mañana veintinueve en la Plaza Nueva de esta misma villa, poniéndose por una parte los expresados Percain, Alduides, Narbarte y Andoain, y por otra los indicados Organista, Chinchoa, Larrayoz y Echeandia, (...).

Txisteragile bat baino gehiago izan dugu; haietatik oroi dezagun Patxi Arrieta Irurtia. Oso gogoan dut Arrieta. Goantegintzaz gainera musikari ere oso emana bizi izen zen, harreman samurreko gizon on eta xalo hura.

Iztueta 1845.ean hil zen. Baina urte hartan Tolosan izan ziren lhauteriak gogoan izan zituen. Bere bertsoetan ikus dezakegu garaiko giroa:

Guraiza txorrotxaille
eta tonelguina,
erakustera datoz
beren lan eguiña;
izan ezkeroztanik
merkea ta piña,
salduko da Tolosan
nai duten adina.

Txapelguiñarekin
pelukaguillea
ba daki kizkurturik
edertzen illea;
laster aberasteko
nolako idea?
baldin ba lute beti
irabazbidea.

Zapataguiñarekin
eun-kolaria,
gau ta egun oi dago
neker jarria;
langintza mea dute
bañan txit garbia,
ustelak ezpadira
larru ta arria.

Dendari abilla ta
arotz jakintsuna,
ba dakigu Errira
etorri zaizkuna;
modara apaintzeko
auxen da fortuna
bientzako Tolosa
txit da leku ona.

Ermentaria eta
perra ipinlea
bata gain-gañekoa

bestea ohea;
ezagutuko dute,
agudo ordea,
burni ta mandoaran
matxura gordea.

Pertz-arabatzalle eta
txokolateguiña,
gueienez ba dute
oek zer eguiña;
bata nekatu arren
bestea adiña,
irabazia dute
guztiz desberdina.

Festa arlo honetan adieraziko dut, Tolosan egin zirela Iruñearako erraldoi edo giganteak, 1657. urtean. Berri hau Inazio Baleztenari entzun nion gure herrian eman zuen hitzaldi batetan, Tolosa sortu zeneko zazpigarren mendeurrenaren ospakizunetan 1956.ean.

Geroztik irakurria dut gauza bera, Baleztena beraren lan batetan. Horrela dio *Navarra-Temas de Cultura Popular. Comparsas de Gigantes y Cabezudos* izena daraman liburuxkan:

Vivía allá por los años de 1657, en la capital de Guipúzcoa, la M.N. y Leal villa de Tolosa, un honrado y optimista ciudadano llamado Francisco de Azpillaga, hombre digno de llenar una colección de páginas de gloriosa historia de su patria, pues su misión en este triste mundo, fué la de regocijar la existencia de los infelices mortales, fabricando gigantes, cabezudos y otros no menos serios menesteres. A él acudieron los reidores de Pamplona en 1657, rogándole fabricase ocho cabezas de gigantes iguales o parecidas a las que Joanes de Leperena le llevaría en su macho, para que le pudiesen servir de norte, guía y modelo en el difícil desempeño de su importantísima misión.

Nere ustez, Iruñearako erraldoi eta buruhaundiak egin zituenak, beste herri batzutarako ere prestatuko zituen jostailu hauek.

Non izan ote zuen bere lantegia aipatu Francisco Azpillagak? XVII. mendean, Bernabe Cordero eskultoreak Arostegieta kaleko *Elcaraeta* etxean lan egin zuen, eta Sebastian Insaustik esanda, badakigu *Elcaraeta* etxe horretan bertan XVII. mendean zehar Juan de Sagües y Arlegi maisu galgatzaila hil zela. Beraz, ez zait zentzugabekeria iruditzen erraldoi eta buruhaundi egilearen lantokia Arostegieta kale honetan kokatzea. Baina hau ez da aieru bat besterik, hori bai, zenbait ihardueraren arabera egindako kale zatiketari oinarriturik.

Erraldoiekin batera gogora datorkit Ricardo Palmak idatziriko *Tradiciones peruanas* delakoaren V. alean irakurritako errefrau limatarra. Esaera horrek eguneroko bizitzan ez du gaurkotasunik galtzen eta askotan egokia suertatzen da, batez ere, ezagutzen ez duten gai bati buruz beren eritzia ematen dutenentzat, esaten duenean: *Este habla como los gigantes, por la bragueta,*

hau bait da benetan, erraldoia osatzen duen bastidore barnean doan gizonaren ahotsa ateratzen den lekua.

René Girard-ek dioenez, erraldoiak jaiotzen dira jainkoen semeen eta gizonen alaben arteko nahaskeriatik, eta niretzako honek azaltzen du beren erraldoi izaera.

Epotxa edo gizontxuei buruz, gogoeta honetan buruhaundiekin identifikaturik, lur-azpiko mehatzetan lan egiten zutela esaten da, eta zuhaitzak bere barnean daraman mailadi edo eskaileretatik kanporatzen ziren.

Antzinean, txokolategintzan *metate* izena zeraman harrizko tresnaz baliatzen ziren. Gero, eskulangile haiek bazuten errota, egur-ikatzez zamaturiko sutontziduna. Errota haiek abere indarrez erabiltzen ziren elektra indarra erantsi zieten arte.

Obradore edo lantegi txiki hauek ia herri guztietan aurkitzen ziren. Ehun eta sei txokolate errota eta berrogeitasei konfiteri zeuden Gipuzkoan, 1797. urtean.

Beste lantoki apal eta etxekor batzu utzirik, Tolosan izan genuen txikia ez zen Limousintarra, joan den mendean behin baino gehiagotan dominaz edo medailaz saritua.

Lantegi hura, berrogeiren bat langile izatera heldu zen eta 1890. urte inguruan ezkutatu zen.

Bera horrela iragartzen zen:

Fábrica de Achicorias. Cafés molidos. Chocolates. Tés-Tapiocas-Comisión-Representación. Limousin Hermanos. Tolosa. Depósito: Mayor, 32.

Bide batez, esango dut, denok dakigunez lantegitxo haietan mota askotako goxokiak egiten zirela, eta baita kandelak eta argizariak ere.

Txokolatea hartzeko ohitura ez da gaurkoa gure artean. Aldabaldek honela dio argitaratu gabeko bere lan batetan:

Año 1701 28 de Agosto.

Que en el día del dicho concurso de los cofrades en el Santuario de Izkaskun, no den los mayordomos a ninguna persona de cualquier calidad que sea, chocolate ni bizcocho, ni tampoco al tiempo de ponerse dicho altar por Corpus.

Año 1707.

Hízose el entierro con su nocturno y misa cantada con revestidos. Hubo en todo hasta doce misas en sufragio de la difunta, que se celebraron por algunos beneficiados y expectantes de la Parroquia, a quienes dieron las partes chocolate por desayuno.

Gehienetan goxokiak irina dakar berarekin, eta irinarekin gogoratuko ditut gure errota eta ogi-labeak.

Gorosabelek aipatzen ditu errotak (*beeko errota*, etab.). Igerondoko erro-tari buruz, 1624. urtean izen bereko burdinolarekin bateratuta mintzatuko naiz burni gaien barnean.

Estrabon-ek aipatzen du errota hidrauliko bat, eta Lynn White-k dioenez, ezaguna da Vitrubioaren errota izenpean agertzen dena, Kristo aurreko I. mendearen amaieran.

Gauza bitxia bezala aitatuko dut ez dakigula Tolosako errotarietako Oliteko batek bezain sen odolgaitzik zutenik. Aipamena, *Catálogo del Archivo General. Sección de Comptos. Registros*, delakoaren LII. tomoa, 1365-1535 urteak, 30. orrialdea, Florencio Idoate Nafarroako Artxibategi Orokorreko Zuzendariak jaso.

En 1366 paga una colonia un molinero de Olite por querella de Abram Ezquer-ra, porque le avía tirado de las barbas et dado dos puynnadas et echazgo en tierra et dádole muchas cozes.

Errotak eta ogi-labeak eraiteko erregearen baimena beharrezkoa izaten zen.

Tolosan izkutatu berria dugu irin fabrika bat, Villanuevatarrena, alegia.

Batek baino gehiagok galdetuko du ea zer desberdintasun dagoen errota eta irin-fabrikaren artean. Ikus dezagun *Reglamento Administrativo de la Diputación Foral de Guipúzcoa* delakoak, 1879. urtean dioena:

Por fábricas se entienden los establecimientos montados con piedras y con cedazos que sirven para clasificar la harina y separar de ésta el regilón y toda clase de salvados.

Los molinos son las antiguas industrias de esta clase que tan sólo se limitan a la molienda del grano, dejando la harina con el salvado.

Konbentzioko gerran frantsesek eta espainiarrek Tolosan egin zituzten kalteak ez ziren txikiak izan. Ikus dezagun ogi-labe batekin gertatutakoa:

Muy Sr. mío: Entre los destrozos que han hecho en mis fincas los franceses, miro la ruina que ejecutaron del horno público de cocer pan, de mi Portal del Matadero (en Tolosa), cuya falta incomoda mucho al buen servicio del vecindario, que se queja de ello, y me veo en precisión de la más breve habilitación del horno, lo cual y la firmeza de la obra espero conseguir excusando recursos judiciales, las regulares almonedas, y suplico a V.S. me habilite para el efecto y para que pueda encargar su ejecución a tasación de peritos y terceros en caso de discordia, como espero (...).

De mi Ayuntamiento, 15 de Enero de 1796. Sr. Corregidor Dn. Ignacio Antonio de Zuazagoitia.

Aipatu dut Limousintarren txikori fabrika; baina gure herri honetan bage-nuen beste lantegi hauetako bat ere: Ramon Larrañagarena Napar-Zubi izki-nan, geroztik Market sendiaren ogi-labea egon den leku berean. Larrañagaren lantegi hura 1910. urte inguruan ezkutatu zen.

Garagardoa dugu laboreen nahasketa desberdinen bitartez eginiko eda-ria, aintzin-aintzinatik Europan kokatua, beste kontinenteetan ere ezaguna izanik. Europan, mahastiek harrapatzen ez dituzten lurraldeetatik zabaltzen da –Iparraldea eta Erdialdea–. Denborarekin, garagardogintza industrializatu egiten da eta Hegoaldera zabaldu, hemen ardoarekin lehiatzen delarik, baina azken honek dirudunen artean harrera hobea izan zuen. Hau esana dago azaleko azalpen baten barnean eta gainera orokorki.

Tolosan izan genuen Mokoroatarren garagardo-fabrika, Santa Luzia auzoan. Aipatuko ditut ere sagardotegiak, hogeitazortziren bat orain dela berrogeitamar urte.

Camino doktoreak emanda daukagu, XIV. mendearen haseran kaskoinez ardo eta sagardoei buruz idatzitako Ordenantza donostiarren berri. Gogorara-ziko dut hemen, Jose Uria Irastorza adiskideak idatzi zuen *Sagardoa* izeneko liburu interesgarria.

Sagardoarekin, kupelgilea eta tonelgilea datozkit burura. Euskalerrria Pla-zan izan genuen tonelgintza, Martzelino Lopetegi izenekoa. Orain dela berrogeitahiruren bat urte hil zen eskulangile hura. Duela urte gutxi itxi du, San Juan kalean, alhondigako bizimoduarekin harreman haundia zuen Rezola tonelgilearen familiak.

Sagardoa batetik bestera ibiltzeko, gure baserritarrek izan dute *karreta-barrika* edo *gurdi-barrika* izeneko ontzi berezia. Luzeantza tankerako barrika, gurdi gainean erabiltzeko egina izaten zen edo izaten da.

1799. urteko *Las Ordenanzas de Tolosa* izkribuan, *Euskal Herriko Adiski-deen Elkarte Errealaren Aldizkarian* neronek argitaratuta, 6. artikulua honela dio:

Que en días de precepto riguroso, ninguna persona ande con carros ni acé-milas cargadas, pena de seis reales de vellón por cada vez y por cada persona que contraviniere a este mandato.

Nekazal-gurdien erabilpena oso araututa zegoen. Gure Junta Generaletan harreta haundiz begiratzen ziren.

Todo coche, galera, carromato y carro común, sea del país o de fuera de él, que atravesase en cualquier sentido las carreteras de esta Provincia, deberá llevar sin excepción alguna, de noche oscura o de luna, desde el toque de oración

hasta el del alba, un farol encendido, colocado en la parte delantera y a mayor altura del ganado que lo conduzca.

Uztaien zabalerak hirurogeitamar milimetrokoa izan behar zuen, «y cuando hagan chillar o dar chirridos de intento a sus carros y no lo eviten pudiéndolo, incurrirán en la multa de dos pesetas». Xedapen hauek XIX. mendekoak dira.

La impresión de hallarnos en país extranjero se renovó a nuestros primeros pasos por Guipúzcoa, por un ruido singular que sorprende y admira al viajero antes de acostumbrarse a él. Me refiero al chillido chirriante de los carros de bueyes que se encuentran a cada paso –dio Guillermo Humboldt-ek-, un chirrido arrastrado y penetrante, que oído sobre todo a la caída de la tarde y de lejos, cuando al pronto no se descubre su causa, produce una impresión singularmente triste y opresora.

Julio-Cesar Santoyo-k idatziriko *Viajeros por Alava - Siglos XV a XVIII* lanean irakur daiteke:

Oyense por todas partes los chillidos de los carros del servicio del campo, que parecen trompetas de la Semana Santa.

Un buen señor se reía cierto día ante mí –dio Chaho-k-, de las pequeñas carretas chillonas que empleamos en los montes; se burlaba de sus ruedas cortantes y el agudo ruido que emiten. Yo le dejé hablar. ¿Para qué sirve ilustrar a un necio sobre un punto cuando la ligereza y la falsedad de su espíritu le inducen a error en otros mil? Me contenté con responderle: los carros de nuestros padres eran así; no tenemos la pretensión de ser más sabios que nuestros padres.

Guk ere, gurdia eta bere hots berezia, gertakizun zehatz batekin elkartzen ditugu. Ezkontza bezperan, eta hau ez da gurea bakarrik den ohitura etxeoandre berriaren arrioa baserrira gurdiz eraman izan da, berehalako gertakizuna aldarrikatzen duen kirrinkaz lagundurik.

Baina gurdiaren *abeste* honek bazuen bere alde praktiko eta erabilgarria. Bere kirrinkaz iragartzen zuen bere presentzia bideetan, gehienetan harriz josiak eta zailak, eta horrela beste gurdi batekin gurutzatzea bidearen leku erosoago batetan egin zedin ahalbideratzen zuen.

Idiak min eta gurdia negar dio atsotitz zaharrak, gure egunetan ia ahazturik. Ganadua erekin erabiltzen zen akuilua zela medio esaten zen hau, baina bitxikeria gisa esango dut, andregaiaren arrioz kargaturiko gurdia tiratzeko abereekin erabiltzen zen akuiluak ez zuela eztenik, ganadua ez mintzearren.

Gaur egun oraindik ikusten ditugun gurdiek, burdinezko ardatza eta automobilaren antzeko gurpilak erabiltzen dituzte. Baina garraio-pide honek ez du aldarrikatzen eztairen alaitasuna, ezta eguneroko zereginean aiene goibelak kanporatu ere. Tramankulu hotz eta sentigabea bihurtu da. Arima galdu du. Jarraitu aurretik azpimarratuko dut, ze azken finean garraiorako

tresna bat besterik ez bait da, gurdi mota desberdinak Errenazimendu garaiko Europan zabaldu eta ugaritu zirela, XVI. mendean zehar.

Tolosan *gurdigile* bezala ezaguna zen artesauak beste zenbait tresna ere egiten zuen, esate baterako, *aria*, *lera*, *eskuarea* eta abar luze bat. Nire herrian hiru gurdigile ezagutu ditut: bat, San Esteban auzoan, Marcos Zubillaga Arregi izenekoa; bere lantegia duela berrogeitazortziren bat urte itxi zuen; bestea, Olarraingo Cayetano Ezeiza Ezeizabarrena, duela hogeitabost urte langintza honi utzitakoa, eta azkenik, Soldadu kaleko Manuel Ezeiza Mendizabalen lantegia, orain hamabost urte desagertua.

Mota desberdinetako gurdi hauekin batera aitatuko dut Tolosako Udala 1859rako kezkatzen zuen trafikoa arazoa, Getarin bilduriko Batzorde Nagusiak erabakitako akordio honetan ikusiko dugun bezala:

En la N y L. Villa de Guetaria a cinco de Julio de mil ochocientos cincuenta y nueve, se reunieron en Junta (...).

Tolosa (...). La comisión de obras públicas encargada de dar su dictamen relativo al punto tercero de los remitidos, debe informar a V.S.: que habiendo reconocido el expediente, resulta de él, que con motivo de haber tenido que adouinarse de nuevo la calle Mayor de la villa de Tolosa, que sirve de carretera para la que desde Navarra se dirige a Irún, se ha alterado en su construcción la forma cóncava hacia el centro que antes tenía formando bombeo en él, según aconsejaban el arquitecto director de V.S., el de la villa y el maestro calzador, por la ventaja de mayor duración y firmeza.

Como la calle es bastante estrecha por sí y la ha angostado más esta innovación para un tránsito tan considerable de carromatos como se observa en dicha carretera, ha dimanado de aquí que pasen con mucha dificultad dos carromatos en sentido contrario, tropezando no pocas veces e introduciéndose en las aceras con peligro de atropellar a las gentes que por ellas transitan; motivo por el que propuso el Ayuntamiento de dicha villa a la Diputación Foral que franquearía también para carretera la inmediata calle paralela llamada del Emperador, que por el mediodía y norte termina en las mismas plazas que la Mayor, denominadas la Vieja y la de Arramele, prestándose por consiguiente ambas a este servicio sin rodeo alguno y con igual ventaja y con una muy superior dándose a cada uno un destino fijo de tránsito de carromatos y carruajes en distintas direcciones (...).

Garagardoa eta sagardoa aipatu ditut. Ondoren, ardoarekin batera zahatogilea gogoratu behar. Ardoaren bidez zahato eta zahagí izeneko larruzko ontzietara iritsi gara. Adieraziko dut, zahagia olioarekin ere erabiltzen zela. Erabilpen hauetaz gain, zahagia izpiritu gaiztoen aterpea izan da, eta gogoramen honek antzezpen koreografiko batzutura garamatza.

Zahagigintza. eta zahatogintza erbestekotzat begiratuak izan ditugu gure artean. Langintza hau etorkina izan da guretzat.

Bartolomeren lantegia gogoan dugu Soldadu kalean. Egun, Bartolomeren lantegirik ez da gelditzen.

Tolosan bazen ere beste zahatogile bat: Izurdiaga, hain zuzen. Izurdiaga zaharra nafarra genuen. Karlisten bigarren guda edo gerra bukatu ondoren 1886. urtean Iruñeatik etorri eta Tolosan ireki zuen bere lantegia. Aurrena Agintari kalean eta gero Rondilla edo P. Gorosabel kalean. Azken urteetan Soldadu kalean ezagutu genuen. Zahatogintzategi honen ateak, 1934. urtean betiko itxi ziren.

Sagardoarekin kupelgileak gogoratu baditut, eta ardoarekin gure herrian zahato eta zahagiak egin dituzten eskulangileak aitatu baditut, orain esango dut kupelgile eta zurginaren lana izaten zela *suila* edo uretako *perra* egitea, emakumeak buru gainean eramaten zuena, artile, grin edo belarrez beteriko trapuzko *burukote* baten gainean jarririk, eta artesau hauek izaten ziren arropa egosteko *suila* prestatzen zutenak.

Tolosako neskatxak
Zer dute merezi?
Errekan beratuta
Lixuan egosi.

Garbiketari buruz hitzegiterakoan, Policarpo de Miguelen jabetza fabrika gogoratuko dut.

Tolosako poxpologintza, batek baino gehiagok aipatu du. Nik gehituko ditut orain lantegi haien berriak, Luis Goñi Azpiazu medikuak leialki eman zizkidan berriekin.

Aita Larramendi kalean zeuden *La Fe* eta *La Caridad* poxpolo fabrikak, eta inguru horretan zen *La Esperanza* paperfabrika ere. Fedea, Itxaropena eta Karitatea, kale ber-berean hiru bertute teologalak. Eta Aita Larramendi kalea aitatu dudanez, esango dut Andoaingo jesuita honek Tolosan predikatu zuela, 1746. urteko San Juan eguneko Meza Nagusian, Jose Ignacio Tellechea Idigorasi irakurri nionaren arabera.

La Fe izena zeraman poxpolo fabrika Larramendi kalean aurkitzen zen, esan bezala. Goardia Zibilen koartela egon zen leku berean eta egun Telleriatarren galdategia edo fundizioa. Bizente Goñi genuen lantoki haren nagusia.

La Caridad, *Goñi Anaïen* torloju fabrika ikusi dugun leku berean aurkitzen zen. Bizente Goñi lantegi honen nagusiaren alabarekin ezkondu eta bateratu ziren bi fabrikak, *La Fe* izenekoak ezkutatu.

La Caridad-ekoak, berriz, monopolio barnean urte batzutan lan egin ondoren, mende honen haseran itxi zituen ateak.

1912. urte inguruan, etxe berean aipatutako torlojugintza sortu zen, eta denok dakigu ezkutatu berria dela ere.

Antonio Agirre Etxeberria doktoreak poxpolo fabrika batetan izandako gertaera bitxi baten berri ematen dit, Tolosan jasotakoa:

«Fueron frecuentes las intoxicaciones debidas a la utilización del fósforo blanco en la fabricación de cerillas» dio Antonio Agirre nire lagunak.

Una de estas intoxicaciones –osteitis fosfórica– se dió en una de aquellas fábricas de cerillas, en una mujer joven.

Dicha enfermedad se inicia en la base de un diente, generalmente del maxilar inferior, extendiéndose dichas lesiones a los huesos colindantes.

D. Ramón Azkue, médico titular de Tolosa, la intervino extirpándole todo el maxilar inferior. Como en dicha extirpación se respetó el periostio del hueso (membrana que lo recubre), a partir de él, de ese periostio, se reprodujo otro maxilar, que aunque más reducido adquirió consistencia y servía para realizar la masticación en bastantes buenas condiciones.

A su fallecimiento se volvió a extirpar este segundo maxilar inferior regenerado. El primitivo y este segundo estuvieron expuestos en el Museo Anatómico en la Facultad de Medicina de San Carlos, en Madrid, y en nuestros días los conserva D. José Ramón Marquese Azkue»

Sua poxpoloan, dio errefrau batek.

Batez ere, emakumeek elkarrizketa luzea amaitzean esaten zuten hau, otorduko garaia inguratu eta bazkaria prestatu ez zutenean.

Baina atsotitz honekin ezkogile edo argizarigilea datorrit burura; honen garrantziaz mintzatzen zaizkigu elizabarrutietako kontu-liburuak eta ermandate desberdinetako arautegiak.

Aintzin aintzinatik gizona baliatu izan da erleek egindako argizari eta eztiak. Aristoteles eta Pliniok, Homero berak bezala, ez zituzten insektu hauek ahaztu.

Jainkoak hebraitarrei *Agindutako Lurra* aurkeztu zien *esnea eta eztiak darion lurra* bezala, behin eta berriro errepikatutako esaldian.

Eugenio Evrard-en *El mundo de las abejas* liburuan, nire eskuetara Emilio M. Martínez Amador-ek itzulita iritsi delarik, ondorengo hau irakurtzen dut:

En el vasto mundo de los insectos no hay uno sólo cuya historia nos ofrezca motivos de asombro en número tan prodigioso como la de la abeja; en cuanto a la inteligencia, este insecto es la obra maestra de la creación y el hombre mismo, tan orgulloso de sus dones naturales, se siente en cierto modo humillado al contemplar el interior de una colmena.

Erleen erreginari buruz ezagutzen dut aipatu gabe utzi ezin dudana deskribapena: «Su bello cuerpo largo y espigado sostenido por patas de amarillo

oro, su abdomen ceñido por cuatro anillas de cobre, preñado de millones de promesas vitales».

Benigno Ledo Gonzalezen *Curso Práctico de Apicultura* liburutik hartuta irakurtzen dut. «El veneno de las abejas es un líquido incoloro, transparente como el agua, de olor ligeramente aromático, de sabor amargo y aun quemante (...)». Isaac Lopez Mendizabalek utzi zuen idatzirik *Erleak: beren bizitza eta oiturak* saiakera interesgarria.

Erleek aberastu dute atsotiztegia, batez ere eztena dela medio. Insektu hau agertzen da mitologiaren arloan. Ez da diruz saldu edo erosi behar. Sale-rosketak trukearen bidez egingo dira.

Arantzazuko (Oñati) Soroandieta baserriko etxeoandreak esan zidan bere arbasoentzat erleak sakratuak zirela; bere abaraskak erabiliz purgatorioko arimei argia egiteko kandelak egiten ziren. Hori bai, erleari egotzi zaizkio familiaren gertaerarik garrantzitsuenak, bereziki etxeko jaun edo anderearen heriotza, horretarako ikertzaile desberdinek jasotako formulak erabiliz, eta edonoren eskuerara aurkitzen direnak.

Baina errealitatea beti ez dator bat salmentari dagokionez ezarritakoarekin, nire eskuetan dagoen Legorretako eskuizkribu batetan, 1778. urtekoa, agertzen den ohar batetan ikus dezakedanez:

«Item a Lucía de Arocena le di sesenta reales por una colmena de abejas» .

Heriotzak berarekin dakartzan ohiturek garrantzi handia izan dutela gizonarentzat gure mundu zabal honetan zehar, ez dago esan behar haundirik. Gure artean, gure herri eta auzoetan, heriotzaren inguruan erabili diren ohiturak sakratuak eta aberatsak izan dira, eta arrunt errespetatuak, batzu Kristautasunaren aurretik hasita, mendeetan zehar.

Malraux-ek dioenez, gizona omen da hil behar duenik dakien animalia bakarra. Bizitza eta heriotza bi errealitate bereiztezinak dira.

Erljio guztien pentsakeraren barnean, bizitza heriotza da, eta heriotza, berpiztea, bizitza.

Mundu honetan guztia dago eboluziozko prozesu baten pean, eta gizonaren pentsaera ez da bilakaera honetatik kanpo geratzen, zenbaitetan bere pentsamoldearen erabateko aldaketarekin, heriotza bezala nahitaezko gertaeren aurrean agertutako jokaeretan ere isladatuz; ohitura hauek hileta erriak izenarekin ezagutuko ditugu.

René Girard-ek adierazten digun lez: «Garai bakoitzean jakintzaren antolakuntza dago (...)». Giza ikuspegia baldintzaturik dago, eta ondorioz, aldakorra da. Eta azkenik aipatu dudau hau, alor interpretatibo teorikora iristen da.

Gauza berari so egoteak ez du, askotan, imajinazio ber-berera eraman aintzinako eta oraingo gizona, eta kontsidero hau baliozkotzat jotzen dut hutsegiteko arrisku haundirik gabe, biharko gizonarentzat; eta hau nabaritzeko ere baliagarri suertatzen zaigu memorizatzea. Gu iraganean, historian, memorian euskarritzen gara, etorkizunera agertzeko. Eta hori, zenbaitetan, ohartu gabe egiten dugu.

Hori bai, kontutan izan behar da errealitate ezagun eta bizituari dagokion guzti horrek lur tinkoaren euskarria falta duela, eremu egongaitz ta mugikorrean pausatuz.

Teoriaren arloko pozak Samaniego alegilaria dakarkit burura, -1775. urtean Tolosako Alkatea izana- eta honek, bere ohizko graziaz, ironia fin eta aproposaz aberastuta, hau idazten zion Markinako lagun bati:

Al bendito D. Pablo Pedro (Astarloa) dígale Vd. que para una obra que pienso escribir de antigüedades antediluvianas me diga (puesto que él debe saberlo) cómo se llamaban en el Paraiso terrenal los escribanos, sastres y zapateros. Dele Vd. un abrazo de mi parte (...).

Biasteriko (Laguardia) alegilaria aipatu dudanez, gerorako utzi gabe aipatuko dut, bere beste xedapen testamentarioen artean agertzen dena: «que sobre su sepultura ardiesen doce hachas y dos velas de cera, durante los nueve días de su novena». Aipamena Emilio Palacios-en *Vida y obra de Samaniego* liburutik hartua da.

Aparte honetan, Hobbes gogoratuko dut *Leviatan* delakoan. Gure ahalegi-nean kontutan izan beharreko erreflexioa da:

Las cosas que se nos proponen para que las creamos que están por encima de la capacidad humana, la explicación no las hará más evidentes, sino, por el contrario, más oscuras e increíbles.

Hemen ere ez dago lekutik kanpo Telesforo de Aranzadik egiten duen gomendapena:

Ez gaitezen fida irakurketetan buruz ikasitako izenez, gaiaren ezaguera zuzenik gabe, zeren eta gezur galanta da esandako hura

yo con erudición
cuánto sabría

(*Yakintza III, 46. orria*).

Erritua bat-batekoari kontrajarria dago, eta jakin badakigu heriotzaren aurrean gizonak duen ezintasuna, izaera desberdinetako ohituretan babesa eta itxaropena dakarrela, hauengan jainkoen laguntza edo babesa bilatzen delarik. Jainko hauei hilondoko superbizipenerako beharren aditasuna eta kontua eskatzen zaie, eta baita ere bizitzak dakartzan betebeharrak desberdinetarako.

Beroa bizitza eta hotza heriotza dela esango dut. Bizitza-beroa. V. Gordon Childe-k dioenez:

Históricamente, el hecho más notable acerca de los musterienses es el cuidado que ponían en el arreglo de los muertos (...). Los muertos no sólo eran enterrados cuidadosamente; además, sus tumbas eran colocadas cerca del hogar, como si dieran calor a sus ocupantes. El muerto era provisto de utensilios y de comida (...).

(...) No creyendo en el cese completo de la vida terrena, se imaginaron oscuramente alguna especie de continuación de ella, en la cual el muerto tendría necesidad de alimento material y de utensilios (...).

Hauek, heriotz-jiteko aztarnak izendatuko ditudanak, aspaldidanik gure egunetara bitartean gizonak eraman duen txandakako ibileraren *lekuko* dira.

Nekazal-bizitzan, elizaren hilobia etxearen luzapena izan da ia gure egun hauetara bitartean. Orain arte aitatu dugunarekin bat etorritz, ezagutu ditugu gure eleizetako zur eta harlauzazko zoluetan argizari gorrixka edo zuriz egíniko erroiluak. Gaur egun itxurazko hilobiak direnetan pizten dira, lehenago lurperatze lekuak izandakoak. Carlos III.aren Erree-zedulak, 1787ko Apirilaren 3ko dataz, debekatu egin zituen eleiza barneko lurperatze hauek. Baina xedapen hau astiro eta piskana bete zen, eta behin baino gehiagotan ez erresistentziarik gabe.

Otro pueblo vimos caído como juego de bolos en la falda de un monte –komentatzen dute Regoyos eta Verhaeren-ek–, cuando llegamos se celebraba en la iglesia destartalada el funeral por una difunta. Según la costumbre del país, delante de cada mujer arrodillada, los carretes de cera ardiendo sobre paños negros extendidos en el suelo, iluminaban por debajo todas las cabezas; los pequeños cirios con su luz cruda destacaban las arrugas de aquellas caras inclinadas, las frentes lustrosas con mechones de pelo gris y las manos juntas teniendo los rosarios. Era una devoción imponente.

El suelo desaparecía bajo tantos bultos prosternados y negros (...).

Nuestra Señora de Izaskun ermandatearen anaideek 1585. urtean bi argi-zuzi egitea dekretatu zuten, gaixoetara joandakoan Jauna laguntzeko .

Ermandate honen 1604. urteko oharpenetan zera azaltzen da:

en muriendo cualquier cofrade se ha de decir por su ánima una misa (...), y otra al cabo del año, hallándose en ellas los cofrades de la dicha Cofradía con sus candelas de cera, apercibiéndolos primero con campanilla por las calles y si el difunto fuere de la villa han de ir los cofrades con los candelones a enterrarlos.

Lurremateari buruz Tolosako Udalaren xedapenak, 1626ko Otsailaren 27koak, argitaratuta dauzkat *Ritos Fúnebres* saiakeran, *De etnografía Vasca* obraren barnean. Oraingoan zati bat besterik ez dut irakurriko:

Que sobre las sepulturas de los difuntos por demás calidad que sean, no se pongan más que los cuatro candelones de media libra de cera amarilla.

Desde la casa del difunto a la iglesia donde se enterrase no se puede dar ningún responso en las calles, por ser cosa muy indecente y no se hace en parte ninguna, porque los respuestas se han de dar en dicha iglesia y no en otra parte.

Item que no se puedan vestir de luto a ningún pobre, ni con otro vestido ninguno para acompañar al difunto con hacha ni sin ella, y que si los quisieran vestir lo hagan de por sí, por ser limosna más santa delante de Dios.

Tolosan, beste herri askotan bezala, ugariak izan dira argi-zuziak, kandelak eta argizaria, gehienetan erroilatuta, egitera dedikaturiko lantegi txikiak. Aurrean daukat Santa Maria eleizari argizariaren sumistroa egiteko kontratua. Agiria 1802. urtekoa da eta ezkogile bezala Juan Antonio Urkola agertzen da.

Hitzegiten ari zaizuen honen arbaso bat, 1859. urtean jaioa, Korreo kaleko konfitero/ezkogile baten alabarekin ezkondu zen. Kasu honek eta antzeko beste batzuk denboran nahiko atzera eramango gintuzke; baina gure ibileran, ekidin nahi dugun orainaldi/historia ukituko genuke, nire hitzen hasieran esan bezala. Kontutan izanik gainera deabrua, Gezurraren Aita izateaz gain, Ahantzkortasunarena ere badela.

Eleizako hilobiaren gainean piztutako kandelaren argitasuna eta kanpaiaren soinua elkarrekin joan izan dira.

Buenos Aires-eko kanpai batek ondorendo inskripzioa darama: «Despierto a los dormidos, lloro a los muertos, convoco a los vivos». Irakurritako textuaren transkripzioari erantsirik. Jose Maria Cabodevilla: *Juego de la Oca o Guía de Caminantes*.

Badago herririk, Urte Zahar gauean kanpaiak bere kabuz jotzen duenean, zorigaitzoko urtea iragartzen duela esaten duenik. Ageriko azalpenik gabeko gertaera hau egia balitz, seinalea izango litzateke eta ez superstizioa, gizonaren imajinarioaren fruitu.

Gure garaiko gizonari gero eta ulergaitzagoa egiten zaio kanpaiaren mezua, eta zenbait herritan ez du agonia eta heriotza jotzen. Kanpaia inspirazioarako gaia izan da lan literario ugarietan. Hauen artean gogora ekarriko dut *Las campanas viejas de mi pueblo* tituluduna, Rafael Larumberena, *Guernica* aldizkarian argitaratua, Isidoro Pagoaga lagun mina zen hark fundatua, eta Gregorio Mujikaren artikulua: *Recuerdos de mi País - Campanas de Aldea*; hau, 1907. urteko *La Baskonia* aldizkarian agertu zen.

Rafael Larumbe-k honela dio:

Las campanas de las iglesias modernas, de estas nuevas iglesias de gusto exótico llenas de colorines y de purpurinas, con santos que parecen obras de confitería, no son tan sugestivas ni tienen ese aire de austeridad de las antiguas.

En cambio, ¡qué lenguaje tan tierno, tan alegre o tan triste, tan solemne o tan juguetón y, sobre todo, tan distinto y distinguido tienen las viejas campanas... Las viejas campanas de la iglesia de mi pueblo....

Esa venerable campana –oraingoan Gregorio Mujika mintzo– al ver que un sacerdote humilde acudía a unir con Dios a nuestros abuelos que agonizaban, pidió en lamentaciones tristes que el pueblo le acompañara. Y el pueblo le acompañó

Esa misma campana venerable vio desde su altura morir a nuestros padres, y allá arriba, junto a las nubes, bajo la cruz, vibró con fúnebres acentos, y llorando, pidió en lacrimosos salmos que el pueblo rezara. Y el pueblo rezó.

¡Oh vieja campana, vieja campana! –jarraitzen du Mujikak– Tú que clamaste solícita por mi ascendencia adorada, tú que guiaste amable los primeros pasos de mi juventud, guarda el último eco de tu voz ronca y débil para lanzarlo cuando me veas caminar por el lugar donde condujeron a tantos que lloraste y que no han de volver!

Baina egia da esandako hura:

todo, todo en la tierra
tiene descanso;
todo..., hasta las campanas
el Viernes Santo

Escritura sobre la fundición de la campana de la Parroquia de Santa María, de la villa de Alzo delako dokumentua maneiatzen dut. Dokumentu honek 1699ko data darama eta erreferentzi orientatzaile batzu besterik ez dugu aterako, bere gertutasunagatik Tolosako beste kasu batzutarako balia-garri suerta daitekeelako.

En la N y L Villa de Alzo a dieciocho de mayo de mil seiscientos noventa y nueve (...), parecieron presentes de la una parte (...) y dijeron que hallándose quebrada la campana mayor de dicha iglesia parroquial, para efecto de fundir y hacer de nuevo se había pedido licencia de parte de dichos Señores Rector, Alcalde y Mayordomo y demás Patronos al Sr Juez eclesiástico, y S. M. había concedido el día tres del mes de Abril último del presente año (...)

Y en cumplimiento de la dicha licencia suso inserta y en virtud de ello dijeron los dichos Sres Rector, Alcalde y Mayordomo, que por sí y en el de los demás Patronos de dicha iglesia parroquial de Santa María se han ajustado con los dichos Pedro de Foncueba y Pedro de Camino, artifices campaneros, en que estos había de fundir la campana mayor de dicha iglesia, que se halla quebrada, tomándola por peso y medida y dándoseles para el efecto la tierra y demás cosas necesarias, y recibírseles al que nuevamente fundieren en la misma forma, y pagárseles por su trabajo a razón de veinticuatro ms de vellón por libra del peso que tuviera dicha campana nuevamente fundida (...) En esta manera lo que tuvieren necesidad dichos maestros para su alimento durante el tiempo y días de trabajo, y conforme fueren obrando, y lo demás que hicieren alcance para mediados del mes de septiembre primero venidero de este dicho año, dejando de ello de gracia y limosna para la dicha iglesia el valor de doce libras de metal a razón de cuatro reales y medio por cada una (...).

Aitatuko dut, Pedro de Foncueba eta Pedro de Caminoren, *naturales montañeses, maestros campaneros*, gastu hauek, data horretako kapituluan kontratuaren likidazioari dagozkion kontuak agertzen direla.

Hemen ikusi dugun konpromezu idatzi honetatik urte batzutara, 1715. urteko Urtarrilaren 4ean Tolosan igorpendu zen Sebastian Quintanaren izeanean, Santa Mari parroko kanpai nagusia funditzearen kontura, 1710. urtean egina.

Tolosari dagokion beste aipamen honek ere honela dio:

12 de Agosto de 1791 Se trata de ajustar con José de Lastra, la fundición de dos campanas para la parroquia.

1799.ean Francisco Irizar eltzegile bezala ziharduen Tolosan, eta 1807.ean, Otero eta Barona herriko eltzegileei, errekin ematen zitzaien.

1824.ean, Tolosan lan egiten zuen Jose Maria Etxeberria eltzegileak txosten bat aurkeztu zuen erbesteko loza sartzea galeraz zedin eskatuz.

Esta fábrica levantada por su dueño hace cuatro años –dio Etxeberriak– ha absorbido caudales inmensos de infinitos ensayos y experimentos con la multitud de calidades de primeras materias que hay en el País. Ocupa en el día de 30 a 40 trabajadores entre operarios y aprendices nacionales y artistas extranjeros.

Datu aipagarria ezagutu nuen 1706ko Ekainaren 27an dataturiko eskritura batetan, eta han aitatzten zen Galarretako herritar bat, garai hartan eltzegintzara dedikaturiko berria. Aipatu dokumentuan hau dio:

y con tal también que a Magdalena Saez mujer legítima del dicho Francisco Gonzalez, dentro de 15 días corrientes desde hoy haya de hacer, lo hace y aprobar esta escritura en la villa de Tolosa, adonde viene los días viernes a la venta de vasijas de barro.

Horrela ekiten dio euskal abesti zahar eta herrikoiak: *hankak arinak eta burua arinago*. Eta gauza bera esan daiteke eltzegile haiengatik. Hankak arinak tornuari eragiteko eta burua arinago, –nik oraingoan buru azkarragoaren zentzua ematen diot– egiten ari den piezari behar bezalako amaiera emateko, behar zituzten gure herrian eta herritik kanpo lan egin duten eltzegileek.

TEILAGINTZA

Eltzegilearengandik teilaginarengana joko dugu, teilagintzara. Esango dut, segalari, perzgile eta teilakinen artean askotan izaten zirela gurekin frantziarrak. Langintza honen aintzintasuna frogatzeko nahikoa dugu aipatzea Asia Txikian aurkitu direla molderik gabe egindako teilak, oso teila transkila,

Kristo aurreko VIII. milurtekoak. Moldez egindako lehen adreiluak Mesopotamian agertzen dira IV. milurtekoaren amaieran.

Gure egunetan lantegi bakar batzuren eginkizuna bada ere, antzinean gure herri askotako ekintza izan zen teilagintza. Esan dut, maiz xamar esku-langile haiek frantsesak izaten zirela.

Kanadako Artxibategi Publikoetako Serma Barkhan-ek esanda kontsultatu ahal izan dut 1563. urteko eskritura bat, eta gure teila –Euskal Herriko teila– Terranovara esportatzeari buruz zenbait erreferentzi jasotzen ditu.

Izaskungo Saindutegiko 1689.eko kontuetan eta aipatu Aldabalde-erengandik jasoak (izan zen Aldabalde bat armagina, eta niretzat argi dago jatorriz Abaltzisketakoa zela, zeren eta Gipuzkoako herri honetan agertzen bait dira *Aldabalde Goikoa*, *Erdikoa* eta *Behekoa* baserriak) eta esan bezala, Izaskungo Saindutegian agertzen da: «Se gastaron 50rs. Los 32 se dieron a Gerónimo de Alday, tejero (...). A Gerónimo de Alday compraron 2.600 tejas ordinarias, a 50 rs. de vellón el millar (...)»

En este Ayuntamiento –dio 1796.ean Tolosan dataturiko idazki batek– se leyeron tres memoriales, el uno de (...), tejeros de oficio, pretendiendo respectivamente bajo de escritura su ocupación en trabajar teja y ladrillo para los vecinos y moradores de esta villa en su tejería de Arzabalza, el primero al precio de (...), y en su vista acordaron que mediante se hallan sus Mercedes sin la debida instrucción de la calidad y suficiencia de dichos tres sujetos, suspendían por ahora deliberar sobre su pretensión y dar como dan comisión en forma a dichos señores regidor Lalama y diputado Reyabal, para que informen a la villa en el asunto con conocimiento para deliberar lo conveniente, y se les entreguen dichos memoriales para que elaboren el citado informe.

LARRU-LANTEGIAK

Larrua lantzea dugu lanbiderik zaharrenetako bat. Lantegi honek, bere hastapenetan, Neolitikora garamatza, orduan aurkitu bait ziren zurratzeko larruak zituen propietateak.

Junta Probintzialak, Errege Baimenaren arabera, larrua eta oinetakoen prezioa jartzen zuen 1552. urtean.

Larruontzaileak San Crispin eta San Crispiniano Ermandateko partaide ziren. 1 775. urtean zera idatzi zuten:

A pesar de la ventajosa proporción que hay en este pueblo, para el establecimiento de fábricas de curtidos, solamente se encuentra en él una de suelas.

1776. urtean, zola eta zekorren larru-lantegia zegoen eta bere produkzioa hau zen: «trescientos cincuenta a cuatrocientos cueros enteros al pelo, un año con otro».

1825. urteko Ekainaren 29an Tolosan datatutako idatzia:

José Agustín de Arzaitegui, Miguel de Eceizabarrena, Javier Joaquín de Maestrearena y Sebastián de Altuna, vecinos de la villa de Tolosa, mayordomos los dos primeros y comisionados todos cuatro de la venerable hermandad de San Crispín y Crispiniano (...) recurren a V.S. (La M N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa) con la confianza de hijos para con su buena madre y atentamente exponen: Que de muchos años a esta parte ha sido y es tan público en esta provincia y aún en todo lo demás del Reino, la introducción de toda clase de zapatos fabricados en Francia y otros países extranjeros (...).

1826. urtean, Juan Nobleak zera adierazten dio Probintziari:

que adoptando los mejores métodos que se han introducido para la fábrica de curtidos, ha establecido en esta villa una muy extendida en la que fabrica suelas, becerros, baquetas, correjeles de silleros, pieles de cabras, badanas, baldeses blancos, y ante vacunos, en cantidad abundante para el surtido del país, mayormente, agregándose lo que de la mayor parte de las mismas especies se fabrica en otras cuatro fábricas de la misma clase que hay en esta villa (...).

Hau esan bezala, 1826. urtean.

Aurreko azalpenetik bi urtetara, Nobleatarren lantegi honetako produkzioa hau zen:

M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa.

Nota y razón de lo que se consume en la fábrica de Juan Noblea, sobre poco más o menos.

	cueros
Primeramente cueros de bueyes grandes para hacersuelas se curten al cabo del año	de 600 a 800
Item de novillos y vacas para hacer becerros, baquetas y ante vacuno para las fornituras de militares	2.000
Item pieles de cabra	500
Item id. de ovejas para hacer badanas y baldeses	2.000
Item charoles de varios colores se curten cada mes	de 250 a 300

Advierto que las 4 primeras partidas son correspondientes al año entero y la 5ª al mes, porque aún hace poco tiempo que empezó a trabajar charoles y no se sabe de positivo el consumo que habrá al cabo del año.

Tolosa, Julio 1º de 1828.

Por mi Señor padre Juan Noblea: Fidel Noblea, hijo mayor.

1834. urtean, Fidel Noblea, Santiago Noblea, Miguel Garate Pedro Tolosa, Jose Goñi eta Juan Antonio Caminoren larru-lantegiak zeuden.

Ondorengo dokumentu hau, Antonio Garmendia Otegi emanda herri mailako ibiltzeko baimena da, bigarren karlistadan Tolosako larruontzaile baten tzat egina 1874. urtean.

Dn. Antonio de Garmendia, fabricante de curtidos, vecino de esta villa, que tiene establecida su fábrica en la casa nº 13 de la calle de Belate, extramuros de esta población, trabaja en ella con sus dos criados, permaneciendo hasta la noche, en que los tres vienen a la población a su casa nº 10 de la Calle del Correo, en que habitan; y desea se le facilite el correspondiente pase para que pueda con sus dos criados transitar diariamente a su mencionada fábrica de curtidos de Belate. Tolosa 14 de Febrero de 1874. Permítasele el pase. El Comandante Militar: Crespo, rubricado.

IRUGINTZA ETA EHUNGINTZA

Tolosako koltxoigileak eskatuta, 1747an Junta Probintzialak Frantziatik artillerik ez ekartzea erabaki zuen.

Artzainek maiatza, ekaina eta uztailean egiten dituzte beren ile mozketak.

Iruntzeko torno edo goruan, ehundegi horizontala eta badana ditugu artilearen Erdi Aroko langintzarekin loturiko hiru asmakizunik garrantzitsuenak.

Artilea, ekonomia ingeles eta gaztelauaren lehen mailako artikulua, eta garai hartako azoketan saleroste haundietarako gaia.

Irulea, egur edo burdinezko goruaren atzekaldean eserita, iraganeko irudi bizi eta erreala izan da, honako honek bere azkenetan ikusi duen iragana. Gaur egun, irulea ikustaldi iradokor eta oroiterazle bezala agertzen zaigu, desberdinak diren kondaira eta mitoaren arloetan bizi-bizian.

Erdi Aroan lihoaren lanketa Europa guztian zehar hedatu zen eta XVIII. mendera arte lehen landare-materia nagusia izan zen. Derry eta Trevor I. Williams-ek diotenez, lihoa izan omen zen Txina urrunean merkatuak ireki zituen Erdi Aroko ia gai bakarra.

Garba edo agramadera XIV. mendeko asmakizuna da, agian holandarra.

Baziren beren produkzioa familiareko gordetzen zuten ehundegiak, eta baita beste haundixeago batzu ehule profesionalizatuak manejatutakoak, lantegi honetatik bizi zirenak. *Poco se gana hilando, pero menos mirando*, esan zidan behin batean ehule zahar batek.

Haserako ehundegiak zutikakoak ziren. Egiptyarrei egozten zaie ehundegi horizontalaren asmakizuna, gure Aroaren aurreko bigarren milurtekoaren erdi aldean. Erreferentzi hau eta antzekoak arreta handiz ez dire hartu behar.

Europako ehundegiei buruz dauzkagun daturik zaharrenak XII. mendeko deskribapenetatik, XIII. mende haserako arkeologi-aurkikuntzetatik, eta XIII. mende honen erdikaldeko marrazki ingeles batetatik datozkigu. Baina datu hauek, berritzeko gai dira aurkikuntza berriak direla eta.

1787. urtean, Tolosan 20 artesau ehundegi zeuden, eta ehun eta hogei langilek egiten zuen lan ehundegi hauetan. Azken ehulearen deitura Bereziartua zen eta lantegia Santa Maria kalean izan zuen, duela hirurogeiren bat urte.

Tolosako Erruki-Etxean izan zen artilezko hari eta ehunak egitera dedikatutako fabrika, eta Ascensio Eloseggi zen bazkide eta zuzendari. Dirudienez, lantegi hau martxan zegoen 1778. urterako, eta bere xehetasunak *Gremios y cofradías en el País Vasco* liburuan ematen ditut.

1843ko Maiatzaren 21ean Tolosan egindako ehule aprendiz baten kontratuan hau ezartzen da:

(...) parecieron presentes Francisco Aizpurua, maestro tejedor de esta vecindad, y José Antonio Garayalde, vecino de Alegria, y dijeron: Que el 1º se obliga a tomarle de aprendiz, en su casa, mesa y compañía a Garayalde por dos años (...) y enseñarle el oficio de tal tejedor, según arte y partes que comprende dicho oficio, por la cantidad de onza y media oro, en tres plazos, pagaderos (...).

Ehun-industria garrantzitsua izan zen Baionako Pedro Lesperut y Cía, 1845ean lurreamendiko terrenoetan, gaur *Papelera Española* dagoen lekuan irekia. 1847ko Martxoan, Lesperut-en aipatu fabrika Riverdi y Cía, trebatzeko hiru hilabeteko epea soldatarik gabe proposatzen zuen, edota lau hilabetetako ikastaldia gizonentzat, egunean lau erreal jasoaz; bina erreal emakume eta hamazazpi eta hemezortzi urtetako gazteentzat; hamalau eta hamasei urte bitarteko mutilentzat erreal t'erdi eta erreal bana hamabi eta hamahiru urtekoentzat. Ehuleak ofizialetzat jotzen ziren enpresan sartzen ziren orduko. (Gorosabelek Santa Luzi auzoko *Etxetxo* etxean zegoen manta-fabrika aipatzen du).

Doussinague ehun-fabrika ere desagertu berria da.

KAPELAGINTZA

Tolosan bi kapelategi ziren 1834. urtean. Bata, Felipe Rinchan-ena bere ardurapean, eta honek lau mila eta bostehunetik sei milara kapela urtean egiten zituen, gehienak mota finekoak.

Beste kapelategiak, lanean ziharduen 1818. urterako, eta Migel Antonio Lasa eta bere semea ziren jabeak. Urtero, seirehun kapela, arruntak, bostehun fin eta zetazko hirurehun.

El automovil astekaria tolosarrak, 1901 urteko Urtarrilaren 27ko alean –oso ezaguna ez den argitalpena da– atera zuen lan txiki bat kapelari eskei-
nia, eta beste gauzen artean, zera dio:

El sombrero o si Vds. quieren, la tapa de las mujeres. El sombrero es el verdadero adorno de toda mujer elegante (...). Los hay de dos tamaños: grandes y mayores; también los hay colosales, pero éstos sólo se ven en los teatros.

Varían mucho en su forma; pero su objeto es el mismo, el no dejar ver más que las bambalinas a los espectadores de un teatro.

A pesar de su antiguo origen es la prenda que menos innovaciones ha sufrido. Es lástima que no se hayan aplicado al sombrero femenino los inventos modernos, ni el fonógrafo ni el cinematógrafo, ni siquiera el telégrafo sin hilos.

El material que entra en su confección es muy variado: el fieltro, la seda, el castor, la paja, etc., etc.

ZURGINA

Egurra gizonaren eskuetan zegoen leku haietan, honetaz baliatu izan da era batetara edo bestera, bere ahalmenen barnean.

Egurra –aurrerago burdinarekin ikusiko dugun lez– ez da zergetatik salbu geratu. Egyptok erregulariki erosten zuen Ziria eta Libanotik zedroa, nekosta eta hagina, eta Sudan-ek egurrarengatik ordaintzen zuen zergak bide eman zuen *ebano* hitza sortzeko, izatez egypziarra.

Zurginak hainbeste erabiltzen duen lanabesa den birabarkiari buruz hitz-
giterakoan, esango dut bere sorrera XV. mendearen lehen herenean finka dai-
tekeela, eta eskutoki bikoitzarekin batera, Behe Erdi Aroko lanabesen
diseinuaren eboluzioaren barnean urrats garrantzitsua markatzen du.

Birabarkia baino lanabes zaharragoa da zerra. Zerraren jatorria aurki-
tzeko, ipuiaren eremu zabalera joko dut. Euskal Herrian burdina ezaguna zen
baina ez zerra, jentilen artean erabilia zuhaitzak mozteko.

San Martin Txiki errementaria zen, eta deabrua genuen jentilen erremen-
taria. Behin batetan, *San Martin Txiki* bere zerbitzaria deabruaren sutegira
bidali zuen, joan eta han aldarrika zezan beraiek ere ezagutzen zutela zerra-
ren sekretua. Hau entzutean deabruak esan zuen: *Ez zuen zerrarik ezagutuko
lehenago gaztainaren hostoan erreparatu ez balu*. Esandako hau nahikoa izan
zen *San Martin Txikiren* lantegian zerra tajutzeko.

Nire eskuetan dauzkat 1624ean zurgin tolosarrak eta Martin de Idiaquez Isasik sinaturiko bi dokumentu, eta hauetan egiten da Idiaquez Jauregiaren deskribapena, gela kopurua, ikuiluaren kokapena, etab. Jauregiaren zati haundia San Simon gauan erre zen, 1749. urteko Urriaren 28an.

1799. urtean sinaturiko zurgin aprendiz baten kontratuak, besteak beste, hau dio:

En la villa de Tolosa a 16 de agosto de 1 799, ante mi el escribano real de número (...), parecieron presentes de la una parte D. Pedro Manuel de Ugartemendia, maestro carpintero, y de la otra Francisca Ignacia de Echaiz a una con su sobrino José Ramón de Arrondo, huérfano de padres, vecinos de esta misma villa: Y dijeron que dicho Arrondo se hallaba en la casa del referido Ugartemendia, hallaba poco más de dos años, con ánimo de aprender el oficio de carpintero (...), bajo de las calidades y condiciones siguientes:

Que dicho Arrondo haya de servir al referido Ugartemendia en los citados cuatro años con el correspondiente amor, puntualidad, exactitud y esmero, en las cosas y trabajos que le ordenare, siendo afecto a las funciones de Iglesia, acudiendo sin pretexto alguno a las misas mayores, vísperas y santo rosario los días de fiesta, confesándose a menudo, retirándose a casa a las avemarías, a menos que no sea licenciado por su amo dicho Ugartemendia, y que cumplido el tiempo de dichos cuatro años, pueda salir libremente el indicado Arrondo adonde guste.

1799ko hitzarmen honen bidez badakigu aprendizak nola bizi behar zuen baina ez digu ezer esaten maisuaren portaera eta ohiturei buruz.

Tolosako zenbait zurginek, 1799. urteko festetarako Plaza Berrian hesiak jartzen egindako lanengatik zor zitzaienten kopurua eskatzen zuten: idazkia luzea da, eta XVIII. mendeko zurgin tolosar haien izenak, soldata eta eginkizuna adierazteko beharrezko dena irakurriko dut:

Por esta Carta, Juan Antonio de Reparaz, Juan Antonio de Aramburu, Juan Francisco de Olazabal, Josef de Izaguirre, Angel de Larrarte, Martín de Murguiondo y Manuel de Cincunegui, vecinos de esta villa de Tolosa, y todos oficiales carpinteros. Decimos que en el año último de 1799, nosotros, Miguel Josef de Larrarte, Joaquín de Ceberio, Juan Bautista de Muroa y Francisco de Muguza, también carpinteros, y Juan Antonio de Izaguirre y Manuel de Usarraga, peones, todos de esta vecindad (...) trabajamos a jornal de seis reales cada carpintero y de cinco cada peón, en la construcción y manufactura de las barras nuevas para la Plaza Nueva.

Nolakoak ote ziren orduko aroztegi haiek? 1800.eko abenduaren 18ko ezkontza-kontratu batek argitzen digu zerbait arazo hau:

El referido Juan Ignacio de Jauregui ofreció dar y que daría a dicho José Maria, su hijo (...), y además, un banco para trabajar en su oficio de carpintería, que eligiese el mismo José Maria, con su barleta de fierro; un serrote nuevo, un hacha y una azuela nuevas; dos garlopas, una mayor y otra menor; un guillame y una juntera, entregaderos todos estos efectos luego que se efectuare dicho tratado matrimonial (...).

1846. urtean, Martin Arrillaga zurginak Ihauterietako egin zituen lanei zegokien faktura aurkezten dio Udalari. Urte hau izan zen ihauteri festa Plaza Zarrak bakarrik jaso zuen azken urtea, zeren eta 1847.etik aurrera, eta Arrillaga zurginak adierazi bezala, Plaza Zarran eta Plaza Berrian ospatu ziren.

HARGINAK

Burdinaren forjara pasa aurretik ez ditugu ahaztuko harginak, Euskal Herrian bertan eta kanpoan egindako lanengatik.

Tolosan kokatzeko, 1626.eko kontratua aitatuko dut, hargin bat eta Martin de Idiaquez-en artean, azken honen jauregian lan egiteko:

En la villa de Tolosa a 9 días del mes de Junio de 1626 años, en presencia de mi Joanes de Lizardi, escribano público de S.M. (...), se juntaron de la una parte D. Martín de Idiaquez Isasi, vecino de la dicha villa, y de la otra Joanes de Maizterra, morador en ella. E dijeron que entre ellos se habían concertado en la forma y manera que contenía en este memorial.

Memorial del concierto entre D Martín de Idiaquez Isasi, vecino de la villa de Tolosa y Joanes de Maizterra, cantero, residente en ella, para otorgar la escritura que ambos quieren firmar para que quede el patín –patio pequeño– de la casa de Idiaquez, sita en esta dicha villa, y asiente en el zaguán un sumidero de piedra (...).

Egin beharreko obra hauen baldintza eta beste xehetasunei buruz ez dut ezer esango.

Tolosako azken harginen artean, oso zehatza izateko asmorik ez duen zerrenda, ondorengo hauek gogoratuko ditugu: Francisco Larrarte –Patxi hargina– eta bere lau seme, Elias, Luis, Teodoro eta Eduardo Larrarte; Mauricio eta Basilio Aizpurua anaiak, Manuel Mujika, aipatu Mauricioen suhia eta Juan eta Pedro Aizpurua, Basilio horren semeak.

BURDINA

Nekazal-kulturaren eboluzioak berarekin ekarri zuen lanabes desberdinen zerbitzua. Nekazaritza, bere eginkizunerako lanabes egoki eta erosogoen erabilpenarekin lotuta dago. Baina DUBY-k dioen bezala eta ez da hau aipatzen dudan lehenengo aldia, Mendebaldeko nekazal-historia bereizten hasten da Karlomagoren garaitik aurrera. Jaso diren 800. urtea baino lehenagoko testuak ez dira ugariak, eta ez dute ahalbidetzen eboluzio baten urratsak behar bezala bereiztea.

Hemen ere adierazi behar da, ezagutu diren zibilizazio guztien artean, Erdi Arokoa izan dela nekazaritzara gehien dedikaturikoa, eta badakigu Goi Erdi Aroan, nekazaria artesaua ere bazela. Berrito diot etxebizitza lantegi bat zela.

Iraultza industrialia ez zen emango aurretik nekazal-iraultza eman izan ez balitz.

Nekazal-garapena industriaztapenerako beharrezko den baldintzetako bat da, gizonaren mentalitatea hein handian aldatuko duen industriaztapen honetarako. Esan beharra dago ere, Erdi Aroko nekazaria gero eta gehiago baliatzen zela burdinak eskeintzen zion abantailaz.

Aitzurraren erabilpena goldearenaren aurrekoa da. Goldearekin lehen aldiz baztertzen da giza-energia nekazaritzan eta gertakizun garrantzitsu hau zuzenki isladatzen da Ekonomian.

Pentsatzekoa da haserako goldea haga zulatzailea besterik ez zela haseran gizonak maneatuta eta geroago, abere bat eta gehiagoren indarrez tiraturik.

Haserako garai batetan, burdin gehiena armak eta mozteko tresnak egi-tera dedikatu zen, eta honekin garbi dago errementaria komunitateko zati garrantzitsua izatera iritsi zela. Tubal-Cainengan daukagu kobre eta burdin lantzaileen aintzindaria, eta errementariari ahalmen majikoak egotzi izan zaizkio bere langintzaren barnean. Eta ildo honetatik, bidezkoa da Salomon erregearen kondaira gogoratzea. Honek, tenplua altxatzen gehien lagundu zuena gonbidatu zuen bere tronoan esertzera. Milaka langileren artean, errementaria aurreratu zen eserlekua betetzera, hau esaten zuen bitartean: «Galdetu zuen langile guztiei. Nik ez banitu lanabesak prestatu, beren lana burutu al zezaketen?».

Gutxi dakigu IX. mendeko amaieraren aurreko iltzeko ferrari buruz. Aipatu Dugy-k dioenez, Metz-en XII. mendean artisauek lanik garrantzitsuena goldearen nabarrak egitea omen zen. Forja-lan hau ez zen jada mendian egiten, baizik eta giza-talde desberdinetan sakabanaturik zeuden lantegietan.

XIV. mendearen bigarren erdialdera, Toulousain-go maiztargo kontratu batzutan, nekazaria beharturik dago goldea egoera onean mantentzera, burdinez eta egurrez horniturik. 1338.ean, Provenzako ospitalariek burdina ematen zieten beraiek enplegatzen zituzten errementariei. Hemendik erraz ondoriozta daiteke indar hidraulikoaren presentzia, mailua eta hauspoa eragin eta burdinolak martxan jartzen zituen.

Tolosarekin duen erlazioarengatik, badu justifikaziorik ondoren esango dudanak. A. Campionek dioenez *-Historia de Navarra-* Leitzako olagizonek ez zuten zergarik ordaintzen 1321 urtean, burdinolek ez bait zuten lanik egiten gipuzkoarren beldur zirelako. Kontu izan hau 1321 urtean suertatu zela, Beotibarko gudua eman zen urte berean.

Esan berria dudan hau zertxobait zabalduz, XIV. mende horretatik (1368. urtea) datorkigu ondorengo diru jasotze hau:

Recepta hecha por Miguel Crozat, cambiador de Pamplona, de orden de los comisarios para la recaudación del préstamo de los 20.000 florines ofrecidos

por el reino para el pago de los gajes de las gentes de armas que sirven en la entrada de Ypuzcoa (...)

(*Catálogo del Archivo General. Sección de Comtos. Registros. 1365- 1535 urteak, 21 orria. Florencio Idoate, Nafarroako Artxibategi Orokorreko Zuzendaria*).

Tolosa agertzen da Jose I. Telletxea Idigorasek argitaratutako XV. mende amaierako burdinolen erroldan. *Colección de Cédulas, Cartas-Patentes: Provisiones, Reales Ordenes y otros documentos concernientes a las Provincias Vascongadas* delakoaren IV. alean, *Madrileko Imprenta Real-ean* inprimatutakoa, 1830. urtean, honela dio:

13 de agosto de 1445.

Don Juan. A los Concejos e Alcaldes e Merinos e Prebostes e homes buenos e otros oficiales cualesquiere a los ferreros e señores de ferrerías de todas las villas e lugares de tierra de Guipúscoa (...), según suelen andar en renta de ferrerías en los años pasados (...). Sepades que Yo mandé arrendar aquí en la mi Corte la renta de las dichas ferrerías de Guipúscoa por cuatro años, que comenzaron primero día del mes de Enero que pasó de este año de la data desta mi Carta e se cumplirán en fin del mes Diciembre del año que vendrá de mil cuatrocientos cuarenta y nueve años.

«La ferrería ahora de Amaro y en su principio de Sasoeta, con su martinete; cuya primera construcción, que debe ser antigua, se ignora». (*Diccionario Histórico-Geográfico-Descriptivo de los Pueblos, Valles, Partidos, Alcaldías y Uniones de Guipúzcoa*. Pablo Gorosabel. Pedro Gurrutxagaren inprimategia. Tolosa, 1862. 534. orria). Bada, oso zehazki emango dugu industri hari buruzko berri gehiago.

Ondo aztertu ondoren, burdinola hau 1622. urtean Martin Eguzkiza eta Juan Barrenetxeari errentatzen zitzaien, Donostia eta Andoainen bizitua lehenengo, eta Ibarrekoa bigarrena. Beste aldetik kontratu hau Hilaria Lopez de Asurciak (Sic) sinatuta dago.

Isastik, 1625.ean idatziriko *Compendio Historial de Guipúzcoa* liburuan ematen duen burdinolen zerrendan horrela agertzen da: *Tolosa La herrería del licenciado Iriarte*, eta beharbada hau Amarozkoa izango da.

Badut ere 1630.ean Maria Lopez de Azurcia (sic) Andereak Antonio Heraso-ri emandako errenta-eskripturaren kopia. Esan dezagun aipatu Maria Lopez de Azurcia Antonio Iriarte lizentziatuaren alarguntsa zela, Antonio Iriarte burdinolaren jabe-kidearen gurasoak.

Konbentzioko Gerran erre zuten tropa espainiarrek Amarozko burdinola hau. 1796ko Martxoaren 9 eta 10eko dataz aurkeztu zen informazio eta adierazpen zabal bat,

las tropas españolas, al retirarse de Irún a Pamplona, dieron fuego y abrasaron dicha ferrería, reduciendo a ceniza más de cuatro mil seiscientas cargas de carbón, barquines y máquinas de los suplicantes (...).

Guzti hau 1794eko Abuztuaren haseran gertatu zen, eta errentatzaile bezala agertzen zirenak, hain zuzen ere, hauek ziren:

Gerónimo de Cincunegui, vecino concejante de esta villa de Tolosa, y Juan de Igueravide, vecino del lugar de Arriba, Valle de Araiz, en el Reino de Navarra.

1845. urtean, Amaroizko burdinolak 90 langile zituen, *Cincuentenario del Banco de Tolosa* liburuan ikus daitekeen lez. 1911-1961, 71 orrialdea.

1867ko Urriaren 6ko salerosketarako eskrituraz, Amaroiz edo Sasoetako burdinola izandakoa jabez aldatzen da eta paper-industria bihurtzen. Agiri horretan, saltzaile bezala Fidel Lizarraga Aldunzin agertzen da, eta erosleak berriz, Juan Sese Escartin, Ramon Bandres Zunzunegui, Jose Agustin Etxeberria Altuna eta Ignacio Ramon Etxeberria. Badut argitaraturik Sarrerako Lan honen ondoren saiakera apal bat: *En Tolosa, la ferrería de Amaroiz* Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen Boletinean –XLII. urtea– (1986) 1-2. koadernoak, 333-342. orriak.

Iguerondoko errota eta burdinolaren erosketa 1623. urtean finkatzen du Gorosabelek, *garai hartako aktetan agertzen denaren arabera*, idazten du gure asaba sonatuak. Jakin badakigu Gorosabelek akta horiek erabili zituela, eta horietan, bere akordio eta guzti, aipatu erosketa tratatzen dela. Erosketa hori, Tolosako herriak urtebete geroago egin zuen, 1624ean, nire esku dagoen kontratuaren kopiaren arabera, eta hemen emango dugu kasurako duen garrantziagatik:

Venta de la ferrería y molino de Iguerondo por D Martín de Puiana para la villa de Tolosa.

En la sala del hospital de esta noble y leal villa de Tolosa, a 1º del mes de febrero de 1624 años se juntaron a son de campana tañida (...). Para que se entreguen al dicho D. Martín de Puyana y él haga depósito de ellos ante el dicho señor alcalde (...). Y el dicho D Martín de Puyana hiciese venta al dicho D. Martín de Idiáquez por la dicha cantidad y después asimismo D. Martín (de Idiáquez) tornase a vender a la dicha villa, y que en esta razón se había hecho cierto ajuntamiento (...). Comprendía la casa herrería y molino y sus calces, presa y antepara de Iguerondo, jurisdicción de esta dicha villa y su monte jaral y robleal y demás pertenecidos (...).

Azkue la Nueva, Azkue la Mayor edo *Pertzola* burdinola Etxaniz familiarekin identifikaturik egon zen 1861 urtetik 1934.ean desagertu zen arte.

Jose Manuel Etxaniz olagizon tolosarrak errentan hartu zuen Iberoko burdinola, Leitza inguruan, 1857. urtean, bost urtetarako; baina 1860. urtean

el mismo Sr. Echaniz le propuso al compareciente Sr. Minondo que por los inconvenientes que tiene para andar de Ibero a Tolosa, deseaba rescindir el arrendamiento y hacer entrega de las ferrerías

Agiri honetan agertzen da obradoreetako lanabesen zerrenda.

Iberoko burdinolak preziatzerakoan zurgin-peritu bezala Martin Etxeberria azaltzen da, eta berak eta bere ondorengoek zaindu zuten Pertzolaren zurezko parteak, industri hau itxi zen arte.

Azkue la Nueva-ko burdinolan sartu zen azken *ardatz haundia* pago-egurrez egina zen. Orexatik Lazaro Atxukarro, itzain berastegiarrak eraitsi zuen, Lazaro hau txistularia ere bazen, eta bitxikeria bezala aitatu behar da tresna eskubiz jotzen zuela. Burdinolako ardatz txikia haritza zen eta ordurako erabilia izan zen beste obradore batetan. Datu hauek Felix Etxeberria Garziarena zurginak eman zizkidan, aipatu Martin Etxeberria Garaikoetxearen ilobak.

Olagizonaren giza-alderdia ikerturik daukat lehen eskuko oharpenen bidez. Hemen jasotzen dira urtean zeharreko ospakizunak, lanorduak, soldadak, jan-edariak, olagizonei egindako agurrak, etab. Baina sail honek gure herritik aldenduko nau eta gaurkoan utzi egingo dut.

Tolosako iraganaz arduratu direnetako batzuk kontutan izan dute Errege-Armategia, eta honetaz mintzatu dira luzaro eta zori gehiago edo gutxiagoz.

Monografía Histórica de la Villa de Tolosa delakoan neronek Federico Zabalarekin elkarlanean buruturikoa, zerbait aztertzen dugu gai hau, eta *Gremios oficios y cofradías del País Vasco* nere beste lanean gehiago luzatzen naiz gure herriko armagintza iharduera honi buruz, eta lana amaitzen dut aipatu lantegi horretako inbentario zehatz batez, 1645. urtekoa hain zuzen ere.

Tolosako herriak eginiko adierazpen-eskrituraren bidez, 1627. ean burutu zen Errege-Armategiaren etxe berriaren mailegua, egun Santa Mari kalea den horretan.

1629. urtean Eugiko lantegi nafarrak Tolosako herrira pasa ziren, eta bere lanari 1630.ean ekin zioten.

Gutxi hitzegin da Armategi honek lehen aitaturako Konbentzio Gerran jasan zituen kalteei buruz. Orain agertuko dudan honek 1795eko Azaroaren 14 eta 16ko datak daramatza, eta idatziaren sarrera besterik ez dut irakurriko, interesgarritzat jotzen dudanez:

José María de Lardizabal y Oriar, Caballero de la Real distinguida Orden Española de Carlos III. Director que he sido por la Real Compañía de Filipinas, de las Reales fábricas de Armas de Placencia y esta villa, actualmente comisionado por la misma Real Compañía para las resultas universales de ambos establecimientos, y vecino de esta propia villa: Ante V. Merced en la mejor forma de derecho parezco y digo, que hallándose la casa armería, sus fraguas, máquinas de desbastar bayonetas y demás utensilios pertenecientes a S. M a cargo de la referida Real Compañía con motivo del asiento y Comisión Real con que ha corrido por espacio de muchos años de provisión de armas de fuego e instrumentos de gastadores para el Ejército, hasta el mes de Agosto del año próximo pasado de 1794, en que a consecuencia de Real Orden de seis del mismo mes se abandonaron dichas fábricas, he llegado a entender que en la invasión hecha

en la última guerra por los franceses a esta Provincia y durante la permanencia de ellos en esta villa, han causado considerables daños en dicha armería, sus fraguas, máquina de desbastar bayonetas y demás utensilios pertenecientes a S. M., al modo que en diversos edificios públicos y de particulares, los cuales conviene que se patenten por Perito de conocida ciencia e integridad, y que supiese de antemano la disposición en que se hallaban dichas piezas; en cuya atención:

a V. Merced pido (...),

Memoria sobre las fábricas de anclas, de palanquetas, de batería de hierro, la fundería y otros establecimientos en la Provincia de Guipúzcoa del año 1787. urtean Donostian argitaratua, Tolosan ainguragile bezala Manuel Larrondobuno agertzen da. Argitalpen honetan jasorik dago 1773ko Errege Aginduz Manuel Anciolarik Tolosan irabiatutako burdinezko balanketak egiteko jakinerazpena. Baina ez dugu ahaztuko lantxo honetaz orain baino lehen Manuel Laborde baliatu zela eta aurreko bi erreferentziak argitaraturik dauzkala.

1781ean, Francisco Arribillaga eta Pedro Jose Muñoa tolosarrek Madrilgo Lorategi Botanikoko burdinsarea forjatu zuten.

1797ko Urriaren 30ean izenpeturiko kontratuaren arabera, ondorengo sutegiak errentatzen ziren –textualki irakurrita: «del edificio que subsiste pegante a la casa nombrada del Portal de San Francisco, por su parte inferior, propia de dicho Conde»– Elizaldeko Konteaz ari da. Dokumentuan irakur daitezke errementarien izenak.

1802.ean zera lortu nahi zen:

dar mayor extensión a las fraguas de ferratería (...) en el terreno vacío que existía entre el puente nuevo de Arramele y la tejavana que servía para el depósito y custodia del ganado del abasto público de carnes.

Sutegiez hitzegiterakoan ez dugu ahaztuko «iguala» izenez ezaguna zen kontratuean egindako forja; ordainketa era hau Erdi Aroan hasi eta ia egundaino mantendu da. Kasu honetan errementaria nekazaritzarako lanabes eta tresnak zaintzeaz arduratzen zen eta horren truke, bezeroengandik urtero gai desberdinak jasotzen zituen, aldezturik hitzartutakoaren arabera.

1802ko maiatzaren 8ko eskritura batez baimena ematen da Otsaraingo erroren inguruan aihotzak eta burdinezko beste arma zuriak itxuratzeko makina bat jartzeko. Eskaera hau egin zutenak Martin Murgiondo eta Francisco Olazabal izan ziren, biak tolosarrak.

El 1° de septiembre de 1802, ante mí el Escribano Real y del Número y actual del Ayuntamiento de la villa de Tolosa, y testigos, Juan Dugiols y Juan Sinergo, de nación franceses, domiciliados en esta dicha villa, y de oficio caldereros (...), forman compañía y sociedad bajo de las condiciones y calidades siguientes,

(...) Que todos los años harán precisamente la correspondiente justificada liquidación, y que en los tres primeros (...) tendrá que pagar el citado Sinergo a Dugiols cuarenta pesos de a cada quince reales vellón, por razón de que por ser todavía bastante moderno y principiante en su profesión, no puede en ese tiempo contribuir a la Sociedad con aquellos progresos que el indicado Dugiols (...).

Juan Dugiols hau, –zenbait dokumentutan Juan Antonio bezala agertzen bada ere– Felipe Dugiols Balanzategi, Saritutako Koronela eta Tolosako Seme Kuttunaren aitona da.

Juan Dugiols-ek, bere semea zen Quintinekin batera, Azkue Zarra izeneko burdinola izan zuen errentan, –egun Belauntzako San Jose paperfabrika dagoen leku berean– eta ibaia zikintzen zuela eta salatu zuen Ibarrako Udalak. Herria eta olagizon honen arteko liskarra oso interesgarria izan zen. Geroago, Quintin Dugiols Olarrain auzora pasa zen eta han jaio zen Felipe Dugiols Balanzategi.

1802ko Irailaren 18ko hitzarmenez, Juan Bautista Mujika eta Migel Ignazio Arribillagak, biak Tolosarrak, ondorengo hau izenpetzen dute:

se obligan a la construcción de una fábrica o cubierto para acicalar remientas en un terreno corto y de poco valor, inmediato a la casería de Pisuaga (...),

Kontratuak sei urtetako iraupena zuen.

Zera zioen Juan Francisco Arribillagak, maisu armagile tolosarrak 1804eko Apirilaren 29an dataturiko idatzi batetan:

ha trabajado ciento cincuenta hachas de cortar, con hierro tirado en la ferrería llamada de Amaro, y acero fabricado en la de Pisuaga, ambas en jurisdicción de esta villa, cuyas hachas son de peso de cuatro y medio a cinco libras, y tienen toda la marca del apellido del declarante.

Bi edo hiru urtetara badago errementari honen beste adierazpena, antzeko terminoetan eginga.

1852. urtean Felix Leloup dugu burdinurtuzko galda baten aurrean izenik gabeko lan batetan irakurtzen dudanez, agian Sebastian Insaustirena.

1862.ean Jose Agustin Etxeberria, Jose M^a Etxaniz eta Jose Migel Urkiola y Cia-ren lantegiak dauzkagu.

Aitatu berria dugun artikuluko horretan Juan Jose Yarza aipatzen da: «que había construido el balaustre de bronce del presbiterio».

1884. inguru izango zen *Fundición de Hierro y Bronce y Taller de Construcción de Máquinas Felix Yarza* izeneko enpresa sortu zenean, bere iloba eta nere laguna den Felix Yartzak emandako erreferentzien arabera.

Lantegiaren sortzailea hiltzean, bere alarguntsak, Rafaela Irazustak mende honen lehen hamarkadan lantegia saldu zion Javier Luzuriagari, Victorio Luzuriagaren aitari hain zuzen ere.

Javier Luzuriagaren ondoren *Talleres Tolosa S.A.-k* hartu zuen gaur egun *Voith Tolosa S.A.*

Sebastian Insaustik aipatzen ditu Tolosan izandako zenbait zilargin. Nire aldetik esango dut, 1734. urtean Tolosan bizi zela Joseph Iturrioz maisu zilargina; honetaz badakigu langintza horretara dedikaturik zegoela. Sortzaile honen lanetariko bat *Cuenta de la mayordomía de Juan Antonio de Urkidizar* delakoan ezagutzen dut (...).

En la villa de Asteasu a veinte días del mes de octubre de mil setecientos y treinta y cuatro, ante D. Fernando Recondo, presbítero y beneficiado de la Parroquia de dicha Villa, y capellán de la Cofradía del Rosario fundada en ella, y (...).

Data.

Item se previene que determinó la cofradía fabricar una lámpara de plata para el altar de la cofradía, y habiéndose fabricado aquélla, pesó nueve libras y una onza, que importan en rs de vn. dos mil setecientos dieciocho rs. y veintiseis mrs., y la construcción y fábrica de dicha lámpara seiscientos rs, según se hizo concierto, y además de aguinaldo se le dieron treinta rs, y las tres partidas en unión hacen tres mil trescientos cuarenta y ocho rs y veintiseis mrs, los cuales satisfecho a Joseph de Iturrioz, maestro platero, vecino de la villa de Tolosa, quien hizo dicha lámpara (...).

Ondoren, Manuel Caballero maisuarekin ikastaldi batetarako kontratua ren zatia idatziko dut:

10 de Septiembre de 1798 Aprendizaje de Jph. Ignacio de Andiazabal, vecino de esta Villa de Tolosa, dejo, en cargo, y afirmo a Jph. Ignacio de Andiazabal mi hijo legítimo, en la casa de Manuel Caballero, Maestro Platero, vecino de esta misma villa, para aprender y trabajar este oficio, a tiempo de seis años que empezarán a correr el día diecinueve de Julio del año próximo pasado, desde cuyo día se halla dicho mi hijo en la citada casa de Caballero, con condición de que éste le haya de alimentar y hacerle la limpieza de la ropa durante los indicados seis años, enseñándole el oficio según razón y sin ocultar cosa alguna perteneciente a él (...).

Tolosako iltzeekin Urruzolarrekin identifikaturik egon dira. Xanti Urruzolak bere aurreneko lantegia Tolosan izan zuen, Bidebieta izeneko baserrian. Aurrerago Tolosako kalera bildu zen. Xanti Urruzolari, Kasiano bere semeak jarraitu zion bere lanbidean.

Mende honen hamalagarren urteko gerra bukatzeak garrantzi handia izan zuen gure lantegi hau izkuta erazteko.

Zubillaga familiarengan –aita eta hiru seme– izan dugu erlojugile ospetsurik. Aita, Inazio Zubillaga, Orexan jaiotzen 1868.ean. Lehen sutezia Albiz-

turren izan zuen, eta han jaio ziren Zeferino, Jose eta Pedro semeak. Baina beren lan gehientsuena Tolosan burutu zuten.

Zubillaga zaharrak, Orexako kanpandorreaan dagoen erlojua egin zuen lehendabizi. Errementari artetsu hauek eginak dira Albiztur, Segura, Ormaiztegi, Altzo, Ordizia, Eibar, Andoain, Billabona, Orduña, Aduna, Donostiako Inazio Done eta Amezketako eleiz kanpandorreko erlojuak ere.

Zubillagatarrek eginak dira Ordizia eta Billabonako Udaletxeak. Baita Tolosako Jesusen Alaben eskolakoa eta Euskal Herria plazan dagoena ere.

Zubillagatarrei buruz, beste eskulangile asko bezala, esan daiteke Marañonek bere *Antonio Perez* obran agertutakoa: «Estos hombres de categoría social media; pero casi siempre de inteligencia superior».

Lan egite hura, gau honetan nire aditasunaren gai den hau, eta pentsa daitekeenaren aurka, ez zen era inprobisatu batetan burutzen baizik eta arau batzuren pean garaturik zegoen; ermandate edo kofradietatik zetozen xedapen batzuren arabera araturik zegoen, artesauak, haietako partaide ziren, bai ugazaba bezala edota langile edo aprendiz ziren momentuan.

Ermandate mundu hau hiriaren presentziarekin sortzen da, bereziki lan-tegi txikiaren ordezkari da eta ez zaio lantegi modernoari egokitzen, hau xedapen gaurkotu eta hobagarriez zuzentzen baita. Gizona nola erakundeak beren garaiko seme besterik ez dira.

1616.ean sortu zen Tolosan, Zerkausiko dorrearen salan egindako bilkuran, *San Crispin y San Crispiniano* ermandatea. Ermandate hau ofizial zapata-gilez osaturik zegoen.

1630. urtean sortu zen Santa Barbara Ermandatea. (...),

criados de su Majestad, que le sirven en su armería real en esta dicha villa, por sí mismos y en nombre de los demás armeros que al presente son en la dicha armería real (...), y dijeron que por cuanto los dichos armeros tienen su cofradía de señora Santa Bárbara con sus ordenanzas y constituciones confirmadas por el Señor Vicario General de este Obispado de Pamplona (...), querían fundar e instituir en la dicha iglesia parroquial de Santa María de esta dicha villa (...).

Hemen ez dugu ahaztuko 1630.eko urte honetan ekin zitzaizola forja lanari Errege-Armategian, lehenago aipatu dudana bezala.

Bost urte geroago, 1635.ean, sortu zen San Antonio Abad Ermandatea. (...)

una Cofradía y hermandad en que entren los maestros y oficiales que hubiere en la Villa, de labrar cualquier género de cosas de hierro (...).

XVIII. mendean zehar merkantilismotik liberalismorako urratsa ematen da. Fisiokratentzat industriak eta merkataritzak ez dute balio berririk sortzen, daudenak aldatu besterik ez bait dute egiten.

Fisiokrazia merkantilismoarekin identifikaturik dago. Liberalismoa askatasuna da. «Nada de ir a la rueda de los gremios, que todo lo mandan, que en todo fijan precio».

Gaur egun, elkarte haien zentzu oroigarri bezala iritsi zaigu kaleetako zenbait errotulazio eta baita erlijio eta lan jitezko estatutoak dauzkaten ermandateak ere, azken hauek, kasu gutxi salbu, bizitza erlijiosora soilik dedikatzen direlarik.

Tolosan lehen aipaturiko hiru ermandateak daude eta kalerik ere badugu, nire herriko kale zaharrak, Errementari eta Arostegieta izenekoak, zalantzarik gabe, iraganeko ermandateen aztarnak. Bitxikeria bezala esango dut, ezagutzen dudala 1557ko Otsailaren 25eko data daraman erosketa-kontratua eta urte bereko botere-gutuna, eta bi hauetan aipatzen da Arostegieta kalea.

Nire eskuhartzeari amaiera emateko Felix Urabaien-ek *Estampas del Camino* liburuan egiten duen irazkin bat aitatuko dut:

Tolosa (...) transformó sus antiguas ferrerías en modernas papeleras. Al yunque y al acero sucederán el telar y la bobina, que también pueden adquirir la dureza del hierro si se templa al calor de las grandes ideas

Besterik ez, mila esker denori.

Tolosan, 1981eko Maiatzaren 1a.

Oharra: Mintzaldi honetarako erabili dudana informazioa, nagusiki, ondorengo iturrietatik bildua da: Gipuzkoako Artxibategi Probintziala (Tolosa); Oñatiko Protokolo-Artxibategia; Tolosako Udal-Artxibategia; neronen artxibategia eta bibliografia, hala nola ahoz emandako erreferentzi desberdinak.